

**Pedro Antonio de Alarcon**

# **Heriotzaren laguna**

**euskaratzailea: Anjel Valdes**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Itzulpena: Anjel Valdes.

Euskarazko edizioa: Baroja, 1986

Jatorrizkoaren data: 1865

Pedro Antonio de Alarcon euskaraz:

<http://ekarriak.armiarma.com/?i=780>

Informazio gehiago:

<http://armiarma.com/emailuok/?p=1280>

## MERITU ETA ZERBITZUAK

Mutiko gizajo luze flaku, beilara zen honako hau, begi beltz sendo, kopeta garbi eta munduko eskurik ederrenen jabe, zarpailki jantzia, harro antza eta umore jasanezinezkoa. Hemeretzi urte zituen eta Gil Gil zen deituraz.

Gil Gil gorteko zapatagilerik onenen seme, iloba, birloba... eta Jainkoak jakin zer gehiago ote zen eta mundura argitaratzean heriotza erakarri zion Crispina Lopez bere ama zenari, zeinaren aita, aittona, birraitona eta abarrek ogibide bera ohoratu zutelarik.

Juan Gil gure heroi malenkoniatsuaren legezko aitari ez zitzaion semearekiko maitasuna hasi bizitzaren ateetan oinez joka ari zela jakitean, baizik eta amaren altzotik banandua zela jakin arazi ziotenez geroztik, sortze honek emazte gabe utziko bazuen ere; honengatik esango nuke zapatagintzaren maisu gaixoa eta Crispina Lopez-en artekoa, ezkonaldi motz baina antzuen eredu izan zela.

Hain motza izan ere zeren motzago ezinean gertatu zen, neurri batean benedikazio fruiturik utzi zuela kontutan harturik... Honen bidez, Gil Gil zazpikia zela adierazi nahi dut, edo hobeto esanda, bere gurasoen ezkontzaz gero zazpi hilabetetara jaioa zela, gauza bera frogatzen ez duena. Itxurak soilik juzkaturik, alabaina, Crispinak senarrak egindakoa baino negar ugariagoa merezia zuen; aitaren zapata-dendatik berera igarotzean, edertasun apartakoa eta ohe zein janzteko arropa ugari ez ezik dotez, oso bezero dirutsua eraman baitzion, zein eta konde bat, Rionuevoko kondea!, zeinek, hainbat hilabetez (zazpi uste dugu) bere oin fin eta hauskorrak, Jainkoaz gozatzen duten Crispin eta Crispiniano saindu martirien ordezkari apalena zen Juan onaren lantegi zatarrean jantzi baitzituen.

Halere hauetako ezerk ere ez du zerikusirik orain nire Heriotzaren laguna bataiaturiko ipuin honekin.

Bai jakin behar duguna da Gil Gil umezurtz geratu zela, hau da zapatari ondratua gabe, 14 urtetako adinean, bera ere jostun iaio bilakatzen zegoela eta Rionuevoko konde prestuak, ume-

zurtzaz urrikaldurik edo bere argiaz liluraturik, Jainkoak jakin, laguntzaile moduan eraman zuela jauregira, kondesaren mespretxu eta narda jasoz ordea, ordurako Crispina Lopezengandik erditu umearen berriaren gainean zegoelarik.

Gure heroiak nolabaiteko heziketa jaso zuen, irakurri, idatzi, zenbatzen eta kristautasun bidea, honela latinari ekin ahal izan zion kondearen etxera maiz sartu ohi zen jeronimotar abade baten eskutik, eta egia esan Gil Gilen bizitzako urterik zoriontsuenak izan ziren hauexek; zoriontsu diot, ez atsekaberen faltan zegoelako (kondesak handiak ematen zizkion eta, mementuoro eztena eta aihotza oroitaraziz), bere babeslea gauero Monteclaroko dukearen etxera lagundu ohi zuelako baizik eta duke honek alaba bat zuen bere ondasun eta zeukan eta izango zuen errenta ororen ustezko premu bakar eta unibertsalazena, ederra oso, aita aski itsusi eta zatarra zen arren.

Hamabi udaberrik laztandua zen Elena garai hartan Gil Gilek ezagutu zuenean eta laguntzaile gaztea etxe hartan oso famili prestu eta xahutu baten semetzat jotzen zutenez, Rionuevoko kon-

dearen kupidazko gezurra, neskatxo aristokrati-koak ez zuen gaizki ikusi berarekin mutikoez jolasten duten jokoetan jolastea eta, txantxetan bazen ere, senargai deitura ematera iritsiz eta laztanen bat lapurtuz ere bere hamabi urteak hamalau bilakatu zirenean eta bestearen hama-lauak, hamasei.

Honela beste hiru urte igaro zen.

Zapatariaren semeari sasoi hartan dena luxu eta plazerrez apaindurik azaltzen zitzaion; gor-tean barneratu zen, jaun prestuekin harremanetan jarri, beren bizikerak jaso, frantsesez totelka egiten zuen (oso modan orduan) eta, azkenik, zaldiketan, dantzan, ezpatan, zertxobait xake jokoan eta nigromantzia apurtxo bat ere ikasi zuen.

Hala guztiz ere, Heriotzak hirugarren aldiz hartu zuen gorputz bere aurrera eta oraingoan inoiz baino ankerrago, gure heroia-aren etorkizuna zapuzteko. Rionuevoko kondea hilik gertatu zen ab intestato, eta kondesa alargunak, bere senarra zenaren babestu-ari bihotzez gorroto ziolarik, begietan negarra eta ahoan pozoi, etxea abandonatzeko esan zion, bere han egoteak, senarra-

rena gogorazten ziola eta honek tristatu baizik ez zuen egingo.

Gil Gilek, amets zoragarri batetik ernatzen ari zela pentsatu zuen edo amesgaizto baten gatibu zela beharbada. Ia betarik ez zuen izan, laga nahi izan zizkioten jantziak hartu eta malkotan urturik, jadanik bere aterpe beroa ez zen hura abandonatzeko.

Pobre, ez familia, ez eta gordetzeko altzorik, gixajoak gogoratu zuen Las Vistillas izeneko auzategiko kaletariko batean atari apal bat eta hor kutxa batean sarturik zenbait zapatagintzarako tresneria zeukana, guzti hura auzoko atso-rik atsoenaren esku zegoelarik, zeinaren etxean Juan Gil bizirik zegoela laztanik eta baita goxokiak ere hartua zelarik. Haraxe bada, abiatu zen; atsoak oraindik zirauen; tresnak modu onean zeuden eta atariaren alokerak urte horietan zehar zazpiren bat doblo sortu zion, atsoak pozaz malkotu ondoren eman egin zizkionak.

Gilek amona zaharrarekin bizitzea erabaki zuen, zapatagintzan ihardun eta bai zaldiketa, armak, dantza eta xake jokoa ere zeharo ahaztu, baina inolaz ere ez Monteclaroko Elena!

Azken hau ezinezkoa egingo zitzaien.

Konprenitu zuen, halere, berarentzat hilik zegoela edo alderantziz eta agortezinezko amodio honen gainean hilarria ezarri aurretik, aspalditik bere arimaren arima zenari agur gorengoa eman nahi izan zion.

Honela, gau batez, bere zaldun arroparik hoberenaz jantzi eta dukearen etxerantz abiatu zen.

Atean, hedeak jadanik estuturik zeuzkatela, lau mandozko kotxea zegoen.

Elena bere aitaren gibelean igotzen ari zen.

— Gil! —gozo oihu egin zuen mutila ikustean.

— Goazen! —hots egin zion dukeak gidariari, ez alabaren ahotsik entzun ez eta Rionuevoko laguntzailea ikusi ere.

Mandoak arrapaladan abiatu ziren.

Gizajoak agurtzeko betarik gabe, besoak luzatu zizkion bere amodioari.

— Ia! —marmartu zuen atezainak— itxi egin behar da eta! —Gil bere zorabiotik itzuli zen.

— Badoaz! —esan zuen.

— Bai horixe: Frantziara! —ihardetsi zion atezainak lehor, atearekin muturretan eman ez.



Behin ere baino etsiago bihurtu zen etxera laguntzaile ohia, erantzi eta arropak gorde zituen; ahalik zatarren jantzi zen, ilea moztu eta aurpegian hazi berria zitzaion bizar izpitxoak ere kendu zuen; biharamunean Juan Gilek berrogei urtez, orkoi, aihotz, ezten eta aberaska hondakin artean berotu zuen aulki korrokoilduaren jabe egin zen.

Honelaxe topatu dugu ipuin honen hasieran, Heriotzaren laguna izenburu duena, dakizuenez.

## II MERITU ETA ZERBITZU GEHIAGO

1724.go ekainaren iluntzea gertu zegoen.

Bi urte zeramatzan Gil Gilek zapatari moduan, honengatik ordea ez uste bere zortean etsi zuenik.

Gau eta egun jo eta ke lanean aritu behar zuen jakia ateratzeko eta aldiro kexu zegoen bere esku ederren ezinbesteko hondaketaz; bezerorik ezean irakurri ohi zuen eta atariko egia kasualitatez ere ez zuen igarotzen. Hantxe bakkarik, buru-makur eta betilun bizi zen, atso zahar-raren hitzetatik Crispina Lopezen edertasunaren gorabeheraren bat edota Rionuevoko kondearen eskuzabaltasunaz entzuten zuenaz salbu beste olgurarik ez zeukala.

Igandeetan berriz, egoera guztiz aldatzen zen. Gil Gilek aintzinako laguntzaile arropak, asteen zehar ondo kontserbatuta, jantzi eta Monteclaroko jauretaketik hurbil zegoen San Millán elizako mailetara joaten zen, garai hobea-

gotan bere Elena ahaztezinak meza entzuten zuen hartara.

Bat bestearren atzean pasa ziren urteak eta bertan itxoin egin zion inolako arrastorik somatu gabe. Txikitako ikaskide eta laguntzaileak ordea topatu ohi zuen, hala ere, eta orain usatzen ez zituen giro gorenetakoa berriak kontatzen zizkionten eta horiei esker zekien bere amodioak Franzian jarraitzen zuela. Zer esanik ez dago auzo haietan inortxok ere ez zekiela gure gaztea beste batzuetan jostun txiro bat izango zenik, aitzitik Rionuevoko kondearen legatu baten jabe zela uste zuten; bere bizitzan laguntzaile gazteari nahiagotasun gehiegi eskaini zion etorkizuna ziurtatuko ez zionik pentsatzeko.

Gauzak honela zeudela eta kapitulu hasieran aipatu garaian, jai egun batez Gil Gil eliza eza-gun haren atarian zegoela, bi andere oparo jantziak eta laguntzaile frankorekin ikusi zituen, berarengandik hurbil igaro ziren eta honela haietako batengan bere etsairik amorratuena asmatu zuen, Rionuevoko kondesa.

Jendetza artera ezkutatzera zihoan gure heroia, beste andereak aurpegi-oihala jaso eta...

o!, ene Jainkoa!, Gil Gilek bere bihotzeko Elena zela erreparatu zuenean, bere atsekabe garra-tzen iturri eztia.

Mutiko gaixoak pozaren pozaz oihu egin zuen eta edertasun harengana hurreratu zen.

Elenak ezagutu egin zuen berehala eta bi urte lehenago bezain xamur esan zion:

— Gil!

Rionuevoko kondesak Monteclaroko premua-ri besoa estutu zion eta Gil Gili zuzendua mur-murikatu zuen:

— Nire zapatariarekin pozik nagoena esan dizut... Nik ez dut zaharrik jazten!!... Utz nazazu bakean!!

Gil Gil gorpuaren antzera zurbildurik apiriko-ko harlauzetan erori egin zen.

Elena eta kondesa tenplu aldera barneratu ziren.

Eskena hura ikusitako bizpahiru ikasle barrez lehertu ziren oso osorik konprenitu ez zuten arren.

Gil Gil etxera eramana izan zen.

Hantxe beste kolpe bat zain zeukan.

Bere familia oso eta bakarra zen atsoak, adinak eraginda, heriotzarekin egin zuen topo.

Sukar latz eta gogor batek jota gaixotu zen bera eta herioaren ateetan atximurka ibili zen.

Konortea bihurtu zitzaionean jakin zuen kale hartako bera baino pobreago zen beste auzokide batek zaindu zuela gaitz luzean zehar eta horretarako, sendagile eta botiken gastuak ordaintzeko, etxeko altzairu, tresneria, liburuak, ataria baita gaztearen zaldun jantzia ere saltzera beharturik aurkitu zen.

Hilabete pare bat geroago Gil Gil goseturik, zarpailez goitik behera, gaitzak ahuldua, batere sosik gabe, ez senitarterik, ez lagunik, ama bat adina maite zuen atso hura ere joanda eta are okerrago gaztaro haserako lagun harengana, bere otoitz eta ametsetako Elenarengana hurbiltzeko esperantza izpirik gabe, ataria utzi egin zuen (asaben gordelekua eta honezkero beste zapatari baten jabego) eta aurkituriko lehen kalean zehar ausartu zen, ez norabiderik, ez zereginik, ez norengana jo, ez eta nola lan egin ezta zertarako bizi ere jakin gabe.

Euria ari zuen. Erlojuek ere hiletarako jotzen duten arrats hits horietarikoak zen; zerua hodeiz gainezka eta lurra basatzaz, gizonaren bihotzeko hasperenak alde heze eta ahulak itota; gabetu guztiak goseak, umezurtzak hotzak eta zorigaiztokoak hildakoen inbidiaz daudenetarikoak.

Iluntzean, Gil Gil, sukarretan oraindik, ataka baten zuloan kizkurtu eta zeharo bihozgabaturik negarrari ekin zion.

Heriotzaren ideia azaldu zitzaion orduan irudimenera, ez ordea beldurraren itzal artean eta hilzoriaren dardaretan bilduta, xalo, eder, eta argitsu baizik, Esproncedak deskribatu bezalaxe.

Zorigaiztokoak bihotzaren kontra gurutzatu zituen besoak, hainbeste aintza, atsedean eta zorion eskaintzen zion irudi gozo hura gorde nahian edo; eta mugimendu hura egitean patrikan zeukan gauza gogor baten gainean ipini zituen eskuak.

Berehalako batean, bizitzaren ideiak edo kontserbatzearenak, Gil Gilen burutik zehar uxaturik lasterka zihoana lehen aipatu beste horri ihesi, bat-bateko istripu honi heldu zion gogor, hilobiaren ertzean bertan agertu zitzaion horri.

Itxaropenak milaka promes liluragarri murmurikatu zion, ukituriko gauza gogor hura dirua edo harri baliotsu eskerga bat edo talisman bat izango ote zen susmoak sortarazi zizkietenak, bizitza, zoriona, aberastasuna eta aintza (berarentzat Monteclaroko Elenarengan gauzatzen zirenak) erakarriko zizkion zerbait alegia. Eta heriotzari — Egon! —esanez eskua patrikara eramanez zuen.

Baina, ai ene!, gauza gogor hura, azido sulfurikoaren ontzitzoa zen, bitriolu koipea argiago esanda, betuna egiteko erabiltzen zuena eta zapatari tresnatan azkena izanik, esplikaezinezko kasualidade batez bere sakelan aurkitzen zena.

Honen ondorioz, gizajoak askatasun iturria ikusi ustetan zegoenean, pozoia bat, eraginkorrenetakoa gainera, kausitu zuten bere eskuek.

— Hil gaitezten, bada! —esan zuten bere artean ontzitzoa ezpainetara eramanez.

Eta txingorraren legez hotzak zegoen esku bat nabaritu zuten bizkarrean eta ahots xamur,

eztitsu, jainkotsu batek bere buru gainetik apal-  
ki hitzok bota zizkion:

— Kaixo, lagun!!



# III

## NOLATAN GIL GILEK

### ORDUBETEAN

#### MEDIKUNTZA IKASI ZUEN

Ez zegoen entzun berria zuena baino harridura handiagorik sortaraziko zion esaldirik: — Kai-xo, lagun!!

Berak ez zuen lagunik.

Baina askozaz handiagoa izan zen itzal haren eskuek sentiarazi zion hotz dartada ikaragarria, are handiago, bada, bere ahotsaren tonuarena, sarkorra iparraldeko haizearen pare, hezur mui-netaraino barneratzen zena.

Oso gau iluna zegoela esan dugu...

Umezurtz gaixoak ez zitzakeen beraz etorri berriko izaki haren fakzioak bereizi; bai ordea bere jantzi beltz xukua, ez ar ez eta emeri ez zegokiona hain zuzen.

Kezkaz beterik, izu misteriotsu eta jakinahi biziaren ere, bilduta zegoen ate txokotik jaiki zen

Gil eta ahots galduaz, hortz klasketa artean honela adierazi zion:

— Zer nahi didazu?

— Horixe bera galdetzen diat nik! —ihardetsi zion ezezagunak maitasunezko familiartasunez, besoa Gil Gilenean lotzen zuela.

— Nor zara? —galdetu zuen zapatari txiroak beso hotzaren ukitzean heriotza ere sentitu zuelarik.

— Bila ari haizen pertsona nauk.

— Zein! ...Ni? ...ni ez nabil inoren bila!! —erantzun zuen Gil Gilek askatu nahirik.

— Zergatik hots egin didak orduan? —erantsi zion pertsonaia hark besoari indar handiagoz eutsiz.

— A!! ...Utz nazazu!!

— Ez hadi larritu, Gil, ez diat inolako kalterik egingo... gehitu zuen izaki misteriotsuak: — Etorri!, gose eta hotzak eraginda hago. Han ostatu ireki bat zekusaat, non gaur gauean kautuki zereginik baitaukat. Sar gaitezen eta zerbait hartuko duk.

— Ederki, baina nor zara? —ezetsi zion berri-  
ro ere Gil Gilek, jakinahia beste sentimendu guz-  
tien gaindi izaki.

— Iristean esana diat: lagunak gaituk... Eta  
kontura hartu lurraren gainean ez diodala inori  
ere izen hori egokitzen! Hire aladurak nireak  
dituk! Neu izan nauk hire zoritxar guztien iturbu-  
rua!

— Ez zaitut, bada ezagutzen... —jarraitu zuen  
zapatariak.

— Hire etxean sarri sartu izan nauk ordea!  
Niregatik gelditu hintzen ama beharrean jaiotze-  
ko mementuan. Neu izan ninduan Juan Gil hil  
zuen apoplexiaren iturria; neuk jaurti hindudan  
Rionuevotarren jauregitik; neuk hil nian igande  
batez hire etxekide zahar hura; neronek, azkenik  
jarri nian patrikan ontzi sulfuriko hura...

Gil Gil dardarka has zen aztoratuta bezala; ile  
sustraiak kaskezurrean tinkatzen zitzaizkiola  
sentitu zuen eta ihar gakotuak hausten.

— Deabrua zara orduan! —beldur parega-  
beaz oihu egin zuen.

— Mutiko! —erantzun zion zentsura atsegi-  
nez lutuzko pertsonak—. Nondik atera duk hori?,

ni aipatu duan izaki triste hori baino gehiago eta hobeagoa nauk!

— Nor zara, bada?

— Sar gaitezen ostatuan eta jakingo duk.

Gil presaka sartu zen, izaki ezezagun hura gela argitzen zuen farola apalaren aurrean ipinaz- razi zuen eta antsi izugarriaz so egin zion...

Hogeita hamahiru urte inguruko pertsona zen, lirain, eder, zurbila, kapa beltz eta oihal luzez jantzia eta bere adats luzeak frigiari txano batek, lutuzkoa berau ere, estaltzen zituen.

Bizar izpirik ez zerion eta halere ez zirudien andere. Ar ere ez zuen ematen gizonezko aurpegi gogorra azaltzen bazuen ere.

Sexu gabeko izakia ematen zuen benetan, arimarik gabeko gorputza, edo hobe esanda gorputz hilkor zehatzik ez duen arima zirudien. Nor-tasunaren eza alegia.

Bere begiek ez zuten inolako distirarik. Ilun- betako belztasuna gogoratzen zuten. Bai, itzale- tako begiak ziren, lutuzkoak, hildako begiak. Baina hain nasai, hain baketsu, beren isiltasu- nean hain ziren sarkorrek ezen ez zitekeen begi- rada beraietatik aldendu. Itsasoa bezain erakar-

korrak, hondorik gabeko amildegia adina lilurazten zuten, ahantzia bezain kontsolagarriak.

Honelaxe, Gil Gilek begi geldo haietan bereak ezarri ahala, oihal beltz batek inguratzen zuela nabaritu zuen, mundu osoa anabasan murgildu eta munduko hotsa haizeak eramandako ekaitza bezalako zela.

Istant horretantxe, izaki misteriotsua honela mintzo zen:

— Ni Heriotza nauk, lagun hori... Ni heriotza nauk eta Jainkoa nire agintaria. Jainkoa, leku glorioso bat erreserbatu dian beraxe! Bost aldiz sortu diat zoritxarra eta nik, Jainko zorrotzak, errukia izan diat. Gaur gauean Jaungoikoak hire arima bekataria bere epaitegira eraman nezan agindu zidanean, hire izatea konfida ziezadala erregutu nioan eta hire alboan denboraldi batez bizitzen uzteko, bukaeran bere aintzaren duintasunean hire izpiritu garbia eskaintzearen truke. Nire erreguak ez dira hutsean erori. Heu haiz, bada, errauts hotz bihurtu gabe hurbildu natzaion lehen izakia. Heu haiz nire lagun bakarra!! Entzun ezak, orain eta ikasi hire zorionaren betirako salbazio eta bidea.

Puntu honetaraino iristean, Gil Gilek ahapeka eta nahasiki hitz bat murmurikatu zuen.

— Ulertu diat —ihardetsi zion Heriotzak—. Monteclaroko Elenaz ari haiz.

— Bai! —erantzun gazteak.

— Zin egiten diat hireek ala nireek ez beste ez duela beste besok estutuko! Eta gainera, berriz dioskat zorion osoa ekarri behar diadala bai mundu honetan zein bestean! Horretarako hurrenarekin aski izango duk: Ni lagun maitea, ez nauk Ahalguztiduna. Ez zeukat sortzeko ahalmenik. Nire zientzia suntsiduraren mugetan dago; halere nire bitartez printze eta enperadoreek baino aberastasun, ahal eta indar handiago lortu dezakek. Mediku bihurtuko haut, nire mediku laguna, errekonozituko nauena, ikusi eta hitz egingo didan medikua. Gainerakoa asmatu ezak heuk.

Gil Gil harri eta lur zegoen.

— Egia ote da? —ameskaitz batekin borrokan balego bezala oihu egin zuen.

— Den dena egia da eta pixkanaka kontatuko diadan zerbait gehiago ere... Mementuz soilik, ez haizela Juan Gilen semea jakin behar duk. Nik

hilurren guztien aitormenak entzuten dizkiat eta bazekiat betez Rionuevoko kondea, hire babesle zena eta Crispina Lopezen semea haizela; Juan Gil zorigaiztokoarekin ezkondu baino bi hilabete lehenago erein hinduena.

— Zaude ixilik!! —oihu egin zuen ume gaixokak, aurpegia bi eskuez estaliz.

Gero supitoki ideia batek zauriturik deskribaezinezko izuaz deiadar egin zuen:

— Zeuk, beraz, hilko duzu Elena egunen batean ezta?

— Lasai hadi... —erantzun zion Heriotzak—. Elena ez duk inoiz hiretzat hilko! Erantzun ezak orduan! Nire laguna izan nahi duk?

Gilek beste galdera batez ihardetsi zion:

— Horren truke Elena emango al didazu?

— Baietz esan diat!

— Hona hemen nire eskua! —gehitu zuen gazteak Heriotzari luzatuz.

Baina aurrekoa baino ideia ikaragarriago batek asaldatu zuen une hartantxe.

— Nireak estutzen dituzten zure esku horiek beraiek, ama gajoa hil zuten —esan zuen.

— Bai!, hire ama hil egin huen!.. —jarraitu zuen Heriotzak. Konprenitu ezak ordea, ez niola batere minik eragin... Nik ez zioat inori sufriarazten! Azken hasperena arte oinazeztatzen zaituztena nire arerioa duk, Bizitza, hainbeste maite duzuen Bizitza hori!

Erantzun osoz Heriotzaren besoetara amildu zen Gil.

— Goazen, bada! —esan zuen lutuzko izaikiak.

— Nora?

— Granjara, mediku lanetan hasi beharrean hago eta.

— Baina, zein ikusi behar dugu?

— Felipe V.a errege ohia.

— Nola!, Felipe V. hilzorian dago?

— Oraindik ez, lehenengoz erregetzari berriz eutsiko ziok eta heuk oparituko diok koroa.

Gilek bekokia makurtu zuen hainbeste ideia berriren zamaz abaildurik. Heriotzak besotik heldu eta ostatutik atera egin zuen.

Ez ziren oraindik atean, bizkarrean oihu eta doluak entzun orduko. Ostatuko jabea hil berria zen.



# IV

## MAMIRA EZ DATORREN ARGIKETA

Gil Gil ostatutik irtenez geroztik beregan eta natura osoan hain aldaketa handia hasi zen somatzen ezen Heriotzaren beso indartsuengatik ez balitz, dudarik gabe lur jota eroriko zen ezereztaturik.

Gure heroiak beste inork sentitu ez duena sentitzen baitzuen: Lurraren mugimendu bikoitza, bai Eguzkiaren eta baita bere ardatzaren ingurukoa ere!

Bere bihotzarena ordea, ez zuen antzematen.

Gainerakoan, zapatari zenaren aurpegia ilar-gi argitan arakatuko zukeen edonor, beti miresgarria izan zuen edertasun malenkoniatsua modu izugarrian gehitua zegoela ohartuko zen... Begiek, beltz belusezkoak, Heriotzaren gorputzean agintzen zuen bake misterioitsu haren dirdira lortua zuten jada. Adats luze leunak, belearen hegalen antzera ilun, hilobien alabastroa bezalako gorputz zurbila hornitzen zuen, dirdira-

tsu eta opakua era berean, alabastro honen barruan hiletazko argi bat izekirik balego bezala, poroetatik emeki iragazten zelarik. Jarrera, itxura, bera osorik eraberriturik azaltzen zen, halako izaera goitiar lortuz, betirakoa, naturarekiko harreman ororen arrotz eta zer esanik ez Gil azaltzen zen lekuan azaltzen zela andere gogorenen gaindi, ahaltsu harroenak eta gudaririk esfortzatuenen gainean ipiniko zuen.

Ibili eta ibili mendi-kate aldera hurbiltzen ziren lagun biak, bidaia jarraituz batzutan, hartaz kanpo bestetan.

Herri edota baserriren bat igaro aldiro, kanpaikada mantsoek, airean hilzoriaren hotsean joaz, Heriotzak ez zuela denborarik galtzen adierazten zioten gure gazteari, bere besoa edozein lekutara iritsi zitekeela eta bihotzean izotzezko mendi gisa nabaritu arren, lutuz eta suntsiduraz estaltzen zuela mundu zabalaren azal osoa.

Heriotzak gauza handi eta noizbehinkakoak kontatzen zizkion bere babestuari.

Historiaren arerio, bere erabilgarritasun ustekoaz gaizki esaka aritzen zen gustura, eta honen frogaz gertakizunak gertatu ziren halaxe azal-

tzen zituen eta ez monumentu zein kronikek aurkezten zuten bezala.

Iraganaren amildegia ireki egiten ziren Gil Gilen irudimen libratuaren aurrera, inperio eta gizaldi osoaren etorkizunaz sekretu garrantzitsuak eskainiz, bizitzaren iturriaren misterioa agerraraziz eta gaizki deituriko hilkorrok gabiltzan xede handi eta beldurgarriarena ere; hain filosofia sakonaren argitan azkenik, materia kosmikoaren eta bere gauzatze ugariren moldaketa gidatzen dituzten legeak konpreniaraziz, modu hutsal eta iragankorretan azaltzen diren mineral, landare, abere, astro, konstelazio, nebulosa eta munduena alegia.

Fisiologia, Geologia, Kimika, Botanika, dena argitzen zen zapatari zenaren begietara, bizitzaren bultzailu misteriotsuak ezagutaraziz, mugimendu, ugaltze, pasio, sentimendu, ideia, kontzientzia, erreflexio, memoria, borondate eta desioarena.

Jaungoikoa, Jaungoikoak soilik zirauen itzale-tan, argitasunezko itsaso haien hondoan!

Jaungoikoa, Jaungoikoa soilik zen bizitza zein heriotzaren arrotz, Ludiaren elkartasunetik urru-

tiko, izanean bakar eta gorengo, substantzia gisan soila; ekintza moduan aske, ahalguztidun eta independentea! Heriotza ez zen Sortzailea, bere mugagabeko eraikuntzan, biltzera iristen. Bere gainean zen! Bere eternitatea barnezintasun eta aldaezintasunak itsutu egin zuten Gil Gilen ikusmena eta burua jaitsiz ohoratu, eta sinestu egin zuen, Heriotzaren leizezuloetara amildu baino lehenagoko ezjakintasun handiagotan murgildurik geratuz.

# V EGIAZKOA ZALANTZAZKOAREN TRUKE

1724.go abuztuak 30aren goizeko hamarrak izango ziren Gil Gil, indar ezezko hark ongi irakatsia, San Ildefonso jauregian barrena sartu eta Felipe V.ari entzutea eskatu zionean.

Irakurleari gogorarazi diezaiozun errege honen egoera aipaturiko egun eta orduan.

Espainiako lehen Borboitarrek, Frantziako Luis XIV.aren ilobak, espainiar tronua onartu zuen Frantziakoan esertzea amestu ere ezinean zegoela. Baina beste printze batzuk hiltzen joan ziren, lehengusu eta osabak hain zuzen, bere jaioterriko dosel-aulkitik aldentzen zutenak eta orduan Luis XV.a bere iloba ere hilez gero (hamalau urte eskas zituen eta seriozki gaixotua), okupatzeko prestatu asmoz, Gaztelako koroa Luis I.a semearengan abdikatu eta San Ildefonsora erretiratu zen.

Egoera honetan Luis XV.a zertxobait sendatu ez ezik, Luis I.a ere nafarreriak handiki jota ger-

tatu zen, bizitza arrisku larrian egoteraino! La Granja eta Madril bitartean tartekaturik, hamar postarik ordu oro Feliperi semearen berri bidaltzen zioten, handinahia berez eta gainera Isabel de Farnesio (bera baino handizaleagoa) bere bigarren emazte ospetsuak ziztaturik, ez zekien zein aldetara jo hain bat-bateko istilu larri honetan.

Frantziako tronua Espainiakoa baino lehen hustuko ote zen? Madrilen berriro ere gobernatzeko asmoa barreiatu behar ote zuen, semearen heredentzia biltzera prestatuz?

Baina, berau hil ezean? ez ote zen trakeskeria nabaria izango Europa osoari bere arimaren iluna agertu izana? Bakardadean bizi izandako zazpi hilabeteren sakrifizioa antzu bihurtzea ez ote zen? Ez ote zatekeen San Luisen tronu desiratuan esertzeko esperantzari betirako uko egitea? Zer egin beraz? Itxoin egiteak denbora baliotsua galtzea suposatzen zuen. Gobernu bilkurak gorrotatu egiten zuen eta Estatu arazotan eragin oro eztabaidatzen zion. Pauso bakar bat emateak bere bizitza osoko handi nahia eta izena etorkizunerako auzitan jarri zitzakeen.

Felipe V.a faltsua, munduko tentaldiek basamortuan asaldatzen zuten eta bere abdikatzearen zurikeria aski karu ordaintzen ari zen zalan-tzazko ordu haietan!!

Egoera honetan iragarri zion bere burua Gil Gil gure lagunak Felipe buru makurrari, berri garrantzitsuren emaile zelakoan.

— Zer nahi didak?, galdegin zion erregek begirik jaso gabe behin gela barruan sentitu zue-nean.

— Ene jauna, begira biezat bere maiestateak —erantzun zuen Gil Gilek harro— ez bego bere burutazioak irakur diezazkiodan beldurrez, ez baitira enetzat sekretu.

Felipe V.a supitoki tornatu zen gizon haren-gana, zeinen ahots lehor eta hotzak, esana zuen egia bezalakoxea, bihotzean odola izoztu baitzion.

Bere haserrea ordea, Heriotzaren lagunaren hilezko irribarrean erauntsi zen.

Beldur superstizioso baten gatibu sentitu zen Gil Gilen begietan bereak tinkatzean eta mahaia apaintzen zuen idazkaritzako ezkilara esku dar-

dartsu bat eramanez, aurreko galdera errepikatu zuen:

— Zer nahi didak, bada?

— Jauna, ni mediku naiz... —ihardetsi zion gazteak lasaiki— eta nire zientzian hainbeste fede daukat ezen Luis I zein egun, ordu eta unetan hilko den esatera ausartuko naizen.

Felipe V.ak arreta handiagoz so egin zion zarpailez jantzitako ume hari, aurpegi eder bezain gainaturazkoari.

— Mintzatu hadi —esan zuen erantzun osoz.

— Ez era honetan, Errege jauna! —jarraitu zuen Gil Gilek iskirioz—. Lehengoz prezioan ados jarri beharko dugu!

Frantsesak, amets batetik esnatzean bezala burua astindu zuen hitzok entzutean; eskena hura bestela ikusi eta ia lotsatu egin zen ametitu izateagatik.

— Kontxo! —esan zuen ezkilatxo joaz—. Harrapa ezazue gizon hau!!

Kapitain bat agertu zen eta Gil Gili eskua ezarri zion bizkarrean.

Honek soraio segi zuen.



Erregek lehengo sineskeriara itzuliz, soslaiz so egin zion mediku estrainuari. Kostata jaiki egin zen geroxeago, aspalditik pairatzen zuen tristura areagotua zegoen nabariki egun haietan eta goardietako kapitainari zuzendurik:

— Utz gaitzak bakarrik.

Tentetu egin zen azkenik Gil Gilen parean, beldurra kendu nahi balio bezala eta itxurazko lasaitasunez itaundu egin zion:

— Nor arraio haiz mozolo aurpegi hori?

— Heriotzaren laguna nauk! —erantzun zion gure gazteak begiratu gabe.

— Nire eta bekatari guztion anderea!! -esan zuen erregek txantxa tonuan zeukan haur ikara uxatu nahirik—. Eta gure semeaz, zer diozu?

— Jauna —esan zuen Gil Gilek pauso bat erregerenganatuz, berau gogoz kontra atzeratu zelarrik— koroa bat ekartzera natorkiola diot. Ez diot esango ordea Espainia ala Frantziakoa den, hauxe baita ordaindu beharreko sekretua. Denbora baliotsua alferrikaltzen ari garela diotsot eta, beraz laster eta argiki berba egin behar diodala. Entzun nazala orduan arretaz. Luis I hilzorian aurkitzen da... Bere gaitza hala ere senda-

tzen direnetakoa da. Bere maiestate alegoriako zakurra da...

Felipe V.ak moztu egin zion:

— Esan!, esan ezak behar duana! Dena entzun nahi diat! ...Era guztietara ere urkarazi egingo haut!...

Heriotzaren lagunak bizkarrez kuzkurtu eta jarraitu zuen:

— Bere maiestate alegoriako zakurra dela nioen. Espainiako koroan zuen burua; Frantziakoa bereganatzeko makurtu eta semearen sehaskara erori zitzaion; Luis XV.ak berea estutu zuen eta ez bata ez bestearekin gelditu zen bere maiestate.

— Egia diok! —ahotsez baino, begiradaz baieztatu egin zuen erregek.

— Gaur... —jarraiera eman zion Gil Gilek erregeren begirada jasoz—, gaur egun Frantziako koroatik Espainiakotik baino gertuago aurkitzen zarela, zori berberean zaude. Luis XV zein Luis I, errege umeak biak, gaixo dira. Bien premu izan zaitezke baina bietako zein hilko ote den lehena go jakin beharrean zaude zenbait ordu aurrez. Luis I larriago dago, Frantziako koroak berriz,

lilura handiago dauka. Horra hor zure harridura. Ederki nabaritzen da eskarmentaturik zaudela!! Ez zara jada ausartzen San Fernandoren errege-makilara eskua luzatzera, zure semearen sendatu, historiak isekatu eta Frantziako aldekoek abandonatuko ote zaituzten beldurrez! Are argiago: hortzetan duzun harrapakina askatzera ez zara atrebitzen, dakusazun bestea ilusio edo espejismo hutsa ote den beldurrez!!

— Berba..., berba egin ezak!! —antsiaz esan zion Felipe V.ak Gilek amaitu zuen ustetan—. Berba egin ezak!, edozein moduz hemendik paretek ez bestek entzungo diaten gela beltz batera joango haiz zuzenean!, berba egin ezak!, nire burutazioez munduak zer dioen jakin grinaz nago!

Zapatari zenak irribarre egin zuen mespretxuz.

— Kartzela!, Urkamendia! —hots egin zuen. Hona hemen erregeok dakizuen bakarra!, ni halere ez naiz ikaratzen. Entzun iezadazu beste apur batez amaitu egin behar dut eta. Nik, jauna ganbara-mediku izan behar dut, Duke titulua lortu eta gaur bertan 30 mila peso irabazi...

Barre egiten al du bere maiestatek? Bere maiestatek Luis I nafarreriaz hilko denentz jakin behar duen adina behar ditut nik, bada.

— Eta? ...hik ba al dakik bada? — itaundu zion erregek ahots baxuz, mutikoak sorrarazi zion ikaratik atera ezinean.

— Gaur gauean jakin dezaket.

— Nola?

— Esana dizut Heriotzaren laguna naizela!

— Eta hori zer da?, esplikaidak!

— Hori..., neronek ere ez dakit!, Madrilgo jau-regira eraman nazazue. Erregea ikusarazidazue eta Betirakoak bekokian idatziriko sententzia irakurriko diot.

— Eta huts egiten baduk?, Gil Gilengana gehiago hurbilduz esan zuen Anjoukoak.

— Orduan, urkatu egingo nauzue!, horretarako nahi bezain luzaro edukiko nauzue gatibu.

— Aza haiz beraz! — oihu egin zuen erregek, Gil Gilen hitzei ematen zien fedea nolabait justifikatu nahian.

— Jauna, ez dago gaur egun aztikeriarik! — erantzun zion hark—. Azken aztiak Luis XIV zuen izena, eta azken sorginduak, Carlos II. Espainia-

ko koroak, duela 25 urte lelo baten testamenuan bilduta Parisa bidali genizuen hark, Carlos V.aren abdikatzeaz geroztik pairatzen genuen deabruaren gatibualditik askatu egin gintuen. Inork baino hobeto dakizu hori!

— Ganbara-mediku..., duke... eta 30 mila peso... murmurikatu zuen erregek.

— Zuk uste baino gehiago balio duen koroa baten truke!! —ihardetsi zion gazteak.

— Ene errege hitza duk!! —bota zuen Felipe IV.ak goitiar gisa, ahotsak, itxurakerak eta misterioz beteriko jarrera hark menderaturik.

— Zin egiten al du bere maiestatek?

— Hitz ematen diat! —erantzun zuen frantse- sak— lehendabizi, gizona baino areago haizela frogatzen badidak, hitz emango diat!

— Elena..., nirea izango zara! —erdimintzatu zen Gil Gil.

Erregek kapitainari deitu eta zenbait agindu eman zion.

— Orain... —esan zuen— hire Madrilgo bidaia prestatu bitartean, kontaidak hire historia eta esplikaidak hire jakinduria.

— Horixe egingo dut, jauna, baina uste dut ez bata ez bestea ez duzula konprenituko...

.....

Ordu bete beranduago zaldiz lasterka zihoan kapitaina gure heroiaren saihetsean, berau zar-paletatik askaturik jada, seda-lan ikusgarriez hornituriko tertziopelozko jantzi ederrak, ezpata estutua eta kapela galoneaturik zeramatzala.

Felipe V.ak jantzi hura eta diru ugari oparitu zion Heriotzarekiko laguntasun misteriosoaz jakin ondoren.

Asko korritu arren, jarrai diezaiogun Gil Gil bihotz onekoari, erreginaren ganbaran gerta bairiteke Monteclaroko Elena ohoratua edo Rionuevoko kondesa topatzea eta honelako elkarrizketa interesgarrien xehetasunik ez dugu galdu behar.

## VI

# ALDEZ AURRETIKO HITZALDIA

Arratseko seiak inguruan zaldietatik lurreratu ziren Gil Gil eta kapitaina jauregiko ateetan. Jendetza ikaragarriak gaineztatzen zituen inguru haiek, errege gaztearen bizitzaren arriskuaren berri zutelarik.

Gure lagunak alkazarreko ate-zubia zapaltzean, muturrez Heriotzarekin egin zuen topo, pauso arinez kanpora zihoala.

— Jada? —ikaraz beterik galdetu zuen Gil Gilek.

— Oraindik ez! —erantzun zuen Jainko okerrak. Medikiak arnasa hartu zuen pozarren.

— Noiz, bada? —berehala exigitu zion.

— Ezin diat esan!

— O!, hitz egin ezazu!, Felipe V.ak prometitu didana jakingo bazenu!..

— Ederki orduan, Luis I.aren bukaera noiz izango den jakin beharrean nago.

— Bere tenorean jakingo duk. Sar hadi, kapitaina errege-gela barruan zegok honezkero;

errege aitaren aginduak zekartzak. Une honetan munduko lehen sendagiletzat iragartzen ari zaik eta jendetza hire ikusteko eskaileratan biltzen ari duk. Elena eta Rionuevoko kondesa ere han aurkituko dituk!

— Hau zoriona! —oihu egin zuen Gil Gilek.

— Seiak eta laurden —jarraiki zuen Heriotzak bere taupadak, zeukan erloju bakar eta zehatza, hartuz.

— Hire zain dituk..., gero arte.

— Baina..., esadazu...

— Egia duk, ahaztuta nengoan!, entzunidak!

Luis erregeren ondoan zaudela, ni ganbaran banago, gaitzak ez dik sendatzeko biderik.

— Eta, egongo al zara?, ez al zindoazen bada hemendik?

— Oraindik ez zekiat egongo ote naizen! ...ni nahikoa nauk..., eta gaintetiko aginterik jasoz gero bertan ikusiko nauk, beste edonon banago ere.

— Zertan ari zinen orain hemen?

— Zaldi bat hiltzera natorkik. Gil Gil harriduraz atzeratu egin zen.



— Nola? —oihukatu zuen— arrazoigabekoe-kin ere zerikusirik badaukazu!!

— Zer duk arrazoigabekoen kontu hori? Giza-kiok ba al duzue bada benetako arrazoirik? Arra-zoia bakarra duk eta ez duk lurretik ikusten.

— Baina..., esadazu... —errepikatu zion Gilek animaliek..., abereek..., hemen arrazoigabeko deritzagunek, ba al daukate arimarik?

— Bai eta ez. Askatasunik gabeko izpiritua ditek, arduragabekoa..., baina... hoa infernura, galde-ontzi hori!! Agur beraz... etxe prestu bate-ra noak beste mesede bat egin behar diat eta.

— Niri mesede bat!, argi esadazu, zer da?

— Ezkontza bat hondatzea duk kontua.

— A! —atera zitzaion susmo ikaragarri imaji-natuz— zera ote da...?

— Ezin diat gehiago adierazi... —erantzun zion Heriotzak—. Sartu hadi, berandu duk eta.

— Erotu egiten nauzu!

— Jar hadi nire esku eta hobe pasako duk!, zeharo zoriontsu izango haizela hitz ematen diat!

— A!, ez al ginen kideak?, Elena eta biok, azkenean hil egingo gaituzu, ez da?

— Lasai hadi! —errepikatu zion Heriotzak triste eta goitiar, xamur eta pozaz, ahotsetik hainbeste eta hain efektu ezberdin zeriola zeren Gilek hitz hura ulertzeko esperantzari uko egin baitzion.

— Egon! —esan zuen azkenik lutuzko izakia urrunduz zihoala ikusirik—. Orduen kontua errepikaidazu berriro ez baitut huts egin nahi. Gaixoaren gelan, baina berari begiratu gabe bazaude, gaitzak jota hilko den seinale da eta...

— Egia! Bere aurrez aurre banago ordea, egunaren buruan hilko duk. Bere ohantzean etzanda banago, hiru orduz baizik ez dik bizirik iraungo eta bekokian musu ematen ikusten banauk, bere arimaren alde otoitz egin ezak.

— Eta ez didazu hitzik zuzenduko?

— Ez eta bat ere! Betirakoaren nahiak horrela komunikatzeko baimenik ez diat. Hirezat ikusgarria nauk, horixe duk gainontzekoen aurrean duan abantaila soila. Agur beraz eta ez nazak ahantzi!!

Hau esanda airean itzaldu egin zen.

## VII

# ERREGE-GANBARA

Gil Gil errege-gelan sartu egin zen, Heriotza-rekiko harremanaz ez alai, ez damu.

Jauregiko eskailerak zapaldu ahala, halere, bere bihotzeko Elena ikusi behar zuela oroitu eta ideia ilun guztiak desagertu ziren gau-hegazti orok argitzean ihesari ekiten dion legez.

Jauregi-gizon eta nobleziako beste jaun pres-tuek lagundurik jangela eta galeriak zeharkatu zituen Gil Gilek, errege-ganbararantz eta den denek miretsi zuten Luis I.aren bizitza salbatze-ko Felipe V.ak azken aukera gisa La Granjatik bidali zuen mediku ospetsu haren edertasun eta gaztetasun samurra.

Bertan bi gorteak zeuden: Luis I eta Felipere-nak.

Hauexek ziren, nolabait adierazteko, bi ahal arerioak, aste bete etengabeko borrokan zebil-tzanak, Borboitarren lehen adarretako zerbitzari zaharrak eta Orleansko Felipe (eskuzabal), Fran-tziako erregenteak Espainiako tronuaren ingu-

ruan batu zituen berriak, Anjouko duke handi-nahi ohiak hartatik bere aitonaren tronura jauzi egiteari oztopatu asmoz; hilzorian zetzan ume otzana eta bere emazte ederra, erregentearen alaba menderakaitza, Montpensierko dukesa goraiatuaren gortekoak ziren.

Farnesioko Isabel, Luis I.aren amaizunaren aldekoak, haren hiltzea nahi zuten, Felipe V.aren bigarren ezkontzako semeak San Fernandoren koroatik gertuago egon zitezen.

Orleanstar gaztea, erregin alabaren aldekoek, gaixoa sendatzea nahi zuten eta ez zen eze-torrikiko senar-emazte haien maitasunez baizik eta Felipe V.ari zioten gorrotoagatik, berriro gobernatzen ikusi nahi ez zutelarik.

Luis zorigaiztoaren lagunek, hiltzearen ideia-  
ren aurrean dardarka hasten ziren zeren eta La Granjako bakartiarekiko zeukan menpekotasuna astintzera animatu zuten, hura tronura itzul-tzean egingo zukeen aurrenekoa, atzerriratu edo preso hartzea izango zela ederki asko zekiten eta.

Jauregia beraz, elkarren kontrako desira, handinahi, etsai, azpijoko, susmo, beldur eta esperantza labirintoa zen.

Gil Gil ganbaran barneratu zen begiez pertsona bakarraren bila: Elena ahantzezina.

Erregeren ohantze alboan haren aita ikusi zuen, Rionuevoko kondearen lagun mina zen Monteclaroko dukea, zein Santiago eta Toledoko apezpikuekin, Mirabalgo markesa eta Migel Gerratarrarekin hizketan zegoen; laurak Felipe V.aren kontrakorik amorratuenak izaki.

Monteclaroko dukeak ez zuen hartan bere alabaren txikitako laguna, lehengo paje zena, ezagutu.

Beste alde batean, eta ez beldur sentsaziorik gabe, Heriotzaren lagunak Orleansko Luisa Isabel eder eta gaztearen inguruan zeuden andre artean, bere betirako arerio latza bereizi zuen: Rionuevoko kondesa.

Erreginaren eskuan musu ematen ari zela, albotik igaro zitzaion Gil.

Kondesak ere ez zuen bere senarra zenaren seme bastarta ezagutu.

Halako batez, andere taldearen atzetik tapiz bat altxatu eta Gilentzat ezezagun ziren beste bizpahiruren artean emakume lirain, zurbil, liluragarri bat agertu zen... Monteclaroko Elena zen.

Gil Gilek irmoki begiratu zion eta andere gazteak hotzikara bat sentitu zuen itxurakera eder eta hilbera hura ikustean, hildako maitagarri baten arima erratua balekusa bezala; aurrean Gil Gil beharrean, beste munduko izaki bat baleuka bezala.

Gil gortean!, Gil erregina kontsolatzen, dena mespretxatzen zuen printzesa trufari eta harro hura! Gil luxuzko arropaz jantzia, noblezia osoak miretsi eta onartua!

— A! amets bat, zalantzarik gabe! —pentsatu zuen Elena zoragarriak.

— Zatoz, mediku jauna... —esan zion orduan Mirabalgo markesak—... bere maiestate esnatu egin da.

Gilek esfortzu larria egin zuen bere maitatuaren aurrean aurkitzean harrapatu zuen estasia astindu nahian edo, eta nafarreriatuaren oherantz gerturatu zen.

Espainiako bigarren Borboitarra hamazazpi urtetako mutil koskorra zen flaku, luze eta hezurtsua, itzaletan hazitako landarearen itxurara.

Aurpegia (nolabaiteko espresio finak islatzen zituelarik, bere aldean ez zuzentasuna gorabehera) orain ikaragarri puztuta zeukan, zuldar zakarrez estalirik.

Buztinetan moldatu eskultura zirrimarra traktetsa zirudien.

Errege umeak oherantz zetorkion beste puberrari begirada atsekabetua bota zion eta bestearen begi mutu eta itzaltsuekin, eternitatearen misterioa bezain barneragaitz ziren horiekin topo egitean oihu xume bat atera zitzaion eta aurpegia maindre artera ezkutatu zuen.

Gil Gil, bitartean gelako lau angeluetara begira zegoen, Heriotzaren begira.

Baina Heriotza ez zen han.

— Bizirik iraungo ote du? —gorteko zenbaitek galdetu zion ahapeka Gil Gilen aurpegian esperantza izpi bat irakurri zutelako ustetan; baietz esan zorian zegoen, bere iritzia Felipe V.ari ez besteri eman behar ziola ahantzirik, jantzitik tira egin ziotenean.

Jira egin zuen eta aldamenean osorik beltzez jantziriko pertsona bat ikusi zuen erregeri bizkar emanda.

Heriotza zen.

— Gaitz honek jota hilko da, baina ez gaur! —  
pentsatu zuen Gil Gilek.

— Zer iruditzen zaizu? — itaundu zion Toledo-ko apezpikuak, denek bezala gure gaztearen giza-gaineko aurpegiak eragiten zuen errespetu gaindiezina nabaritzuz.

— Barka iezadazu... —erantzun zion zapatari zenak— nire iritzia, bidali nauenarentzat dago erreserbatua...

— Baina zuk... —Mirabalgo markesak gehituz— hain gazte izanik, ezin izan duzu horrenbeste jakinduriarik ikasi. Zalantzarik gabe Jaungoikoak ala Deabruak eragin dizu... Mirariak egiten dituen saindua ala sorginen lagun aztia zara, dudarik gabe...

— Zure gustura... —ihardetsi zion Gilek—. Modu batera ala bestera, ohean datzan printzearen etorkizunean irakurtzen dut eta sekretu hauen truke zerbait emango zenuke, biharkoan



Luis I.aren pribatua ala Felipe V.aren gatibu izango ote zareten kezka argitzen baitu.

— Eta zer! —bota zion Mirabalgoak sumindurik, baina irribarre arina eginez.

Horretan zeudela Gil Gilek zerbaitetan erreparatu zuen: Heriotza, errege astintzeaz aski ez zuelarik, errege-ganbarako bere egonaldiari probetxu ateratzen ari zitzaion, andere baten ondorian eseri, ia bere aulkian bertan, eta tinko begiratu.

Kondenatua, Rionuevoko kondesa zen.

— Hiru ordu —pentsatu zuen Gil Gilek berekiko.

— Hitz egin behar dizut... —jarraitu zuen esaten tartean Mirabalgo markesak, zeini mediku estrainuari sekretua erostea otu zitzaion.

Baina Gilen begirada eta irribarre batek, markesaren burutazioak asmaturik, hain larritu zuten ezen atzera eman zuen pauso.

Goizean Felipe V. menderatu zuten begirada eta irribarre berberaxek ziren.

Gilek Mirabalgoaren artega-beta hura probetxatu zuen bere karreran pauso handi bat eman eta gorrean ospea tinkatzeko.

— Jauna... —zuzendu zion Toledoko apezpikuari— izkina hartan lasai eta bakarti dakusan Rionuevoko kondesa (honezkero jakina da Heriotza Gilentzat baizik ez zela inorentzat ikusgarri), hiru orduren buruan hilko da. Gertaera gorengo horretarako izpiritua presta dezan aholku eman biezaio.

Apezpikuak izututa atzera egin zuen.

— Zer da hori? —Migel Gerratarrak galdegin zuen.

Prelatuak hainbat pertsonari kontatu zizkion Gil Gilen profeziak eta begi guztiak, jadanik ikaragarri horitzen hasia zen kondesarengan bildu ziren.

Gil Gil bitartean, Elenarengana hurbilduz zihoan.

Elena ganbara erdian zegoen, lurreko marmola gainean zut, eskultura noblea bezain tente eta ixil.

Handik, menderatua, fanatizaturik, deskribaezinezko zoriontasun eta izuak jota, haurtzaroko lagunaren mugimendu guztiak jarraitu zituen.

Elena... —murmurikatu zuen gazteak albotik igarotzean.

— Gil... —erantzun besteak makinalki— zu al zara?

— Bai, neu naiz! —idolatriaz esan zion—. Ez beldurrik izan.

Eta gelatik atera egin zen.

Kapitaina aurre-ganbaran zeukan.

Gil Gilek zenbait hitz izkiriatu zion paper batean eta honela agindu zion Felipe V.aren zerbitzari fidelari:

— Tori..., eta segundorik ere ez galdu!, La Granjara!!

— Baina..., eta zu? —esan zuen kapitainak— ez zaitzaket hemen laga, nire kargu zaude preso.

— Nire hitzaren menpe egongo naiz —nobleki erantzun zion— ezin dizut jarraitu.

— Erregek ordea...

— Zure jokaera onartuko du.

— Ezin!

— Adi egon zaitetz eta arrazoia nire alde dagoela ikusiko duzu.

Une horretantxe errege-ganbaran zurrumuru handi bat entzun zen.

— Medikua! ...Mediku hura!.. —oihukatuz irten ziren batzuk.

— Zer gertatu da? —galdegin zuen Gil Gilek.

— Rionuevoko kondesa hilzorian dago!.. —esan zion Migel Gerratarrak—. Zatoz! ...hemen-dik..., erreginaren ganbaran duzu dagoeneko!

— Zoaz, kapitain —murmurikatu zuen Gilek—, neuk diotsut.

Eta hitzok halako begirada eta imintziaz sostengatu zituen ezen barbarik gabe abiatu zen soldadua.

Gil Gerratarren atzetik Luis I.aren emaztearen ganbarara sartu zen.

## VIII

# AGERKUNDEAK

— Aizak! —entzun zuen Gil Gilek Rionuevoko kondesa zetzan ohandzera zihoala.

— A! Zu al zara? —esan zuen gazteak Heriotza ezagutuz—. Agortu al da?

— Nor?

— Kondesa...

— Ez...

— Nolatan laga duzu ba?

— Ez diat baztertu, ene lagun hori, aipatu diadan legez, ni era berean leku guztietan eta itxura ezberdinetan nagoela baizik.

— Ederki..., zer nahi duzu? —itaundu zuen Gilek zertxobait haserreturik esaera hura entzutean.

— Beste mesede bat egitera natorkik.

— Horrelakoa izango da bada!, esan ezazu.

— Ba al dakik aspaldi honetan errespetu faltan didaala? —gehitu zuen Heriotzak iseka handiz.

— Normala da... —erantzun zion Gilek— konfidantza..., kidesuna...

— Zer da kidesunaren hori?

— Deus ez! Umetan ikusiriko margo bati buruz ari nintzen. Medikuntza aurkezten zuen. Ohe batean bi pertsona zeutzan, edo hobe esanda, gizon bat eta bere gaixotasuna. Medikua begi estalirik eta makila batez armaturik sartua zen gelan eta behin ohe ondoan zegoela gaixo zein gaixotasunaren gainean makilkadaitsuak ematen hasi... ez dut ondo oroitzen zein eroritzen lehenengoz kolpeen eraginez... Gaixoa uste dut.

— Alegoria polita! Baina goazen mamira.

— Bai goazen, denak harrিতuta baitaude ni hemen ganbara erdian honela gelditurik, hain bakarti ikusteaz.

— Utz itzak! Gogoetan edo goiargitzearen zain hagoela pentsatuko ditek. Adu idak une batez. Hik badakik berez lehen aldia dagokidala eta kontatu diezaakedala ere... Ez ordea, etortzeke dagoena.

— Aurrera!

— Pazientzi pixka bat! Rionuevoko kondesarekin azken aldiz berba egin behar duk eta istorio bat aipatu behar diat.

— Alferrik da, emakume hura barkatu egin dut.

— Elenaz ari nauk astakirten hori!, —oihu egin zuen Heriotzak.

— Nola!

— Kontua, hi noble izatea eta berarekin ezkondu ahal izatea duk.

— Noblea banaiz! Felipe V. erregek duke izendatu nau.

— Monteclarok ez dik itxurazko bat oniritziko. Arbasoak behar dituk.

— Eta zer?

— Rionuevotarren azken ardaxka haizela esana diat.

— Bai, baina bastarta...

— Erraturik hago! Berezkoa... eta oso!

— Hala bedi, baina zeinek frogatu hori?

— Horixe esan behar diat.

— Hitz egin ezazu!

— Adi egon eta ez idak moztu. Kondesa hire bizitzako esfinge ikaragarrikoa duk.

— Badakit.

— Bere esku zegok hire zoriontasun osoa!

— Hori ere badakit!

— Erauzteko tenorean hago bada!

— Zeren bidez?

— Ikusiko duk. Hire aitak asko maite hindue-  
nez...

— A! Asko maite al ninduen? —esan zuen Gil  
Gilek.

— Ez mozteko esan diat! Asko maite hindue-  
nez gero ez zian mundua utzi hire etorkizunean  
serioski pentsatu gabe.

— Bai zera! Ez al zen kondea ab intestato hil?

— Nondik atera duk hori.

— Horrelaxe dago leku guztietan.

— Kondesaren asmakeria hutsa, kondearen  
diru osoa eskuratu eta gero premu gisa iloba bat  
uzteko!

— O!

— Ez hadi larritu, dena konpon zitekek. Hire  
aitak, Crispina Lopezen aitormen bat zeukak,  
Juan Gilen beste bat eta gainera hi Rionuevoko  
kondea eta Crispina Lopezen arteko berezko  
semea haizela egiaztatzen duen eskubidezko



justifikazioa, biak ezkongai zirela ereinda haizela alegia.

Hauxe aitortu zian hire aitak neronek ondo ezagutu ditudan abade eta idazkari baten aurrean heriotzako orduan... Abadea, hain zuzen... Baina hau ezin diat kontatu. Kondeak, bada, bere premu bakar eta unibertsala izendatu hinduan. Ez hurbil eta ez urruneko seniderik ez izatean errazago burutu zezakeelarik. Eta ez huen hemen geratu hire aitak hilobiaren bazterretik bertatik etorkizuneko zoriona errotzeko ardura.

— O, ene aita! —murmurikatu zuen Gilek.

— Entzunidak, gauza jakina duk Montecclaroko dukea eta konde ondratua aspalditik lotzen zituen laguntasun handia, suzesioko gerratean armakideak izan zirenez geroztik.

— Bai badakit.

— Ederki bada —jarraitu zuen Heriotzak— hire aitak, Elena zoragarriarengan heukan maitasuna asmatuz, hil baino une batzuk lehenago, dena azaltzen zion eskutitz luze eta sakona zuzendu zioan dukeari, hirezat bere alabaren eskua eskatuz eta iraganeko garaietan bien

artean emandako hainbat eta hainbat laguntasun froga nabari gogoraraziz.

— Eta eskutiz hori? —galdegin zion ikaragarri suharki.

— Eskutiz hark soilik konbentzituko zian dukea. Eta hi honezkero, bere suhia izango hintzen..., duela urte asko.

— Zer gertatu da eskutiz horrekin? —berriro galdegin zion gazteak maiteminez dardaratsu eta amorruz gainezka.

— Eskutiz hark nirekin harremanetan jartzea ebitatuko zian —segitu zuen Heriotzak.

— O! ...ez zaitez anker izan! Eskutitza existitzen dela esadazu!

— Horixe baita egia.

— Existitzen da beraz?

— Bai.

— Zeinek dauka bada?

— Galarazi zuen pertsona berak.

— Kondesak!

— Kondesa.

— O! —hots egin zuen gazteak azken hatseko oherantz pauso bat aurreratuz.

— Hago hor! —esan zuen Heriotzak—. Oraindik ez diat bukatu. Kondesak bere senarra zena-  
ren testamentua ere gorderik zeukak ia eskueta-  
tik harrapatu zidaan.

— Zuri?

— Niri diot, zeren kondea erdi hilik baitzego-  
en.

Abade eta idazkariei buruz, esango diat non  
bizi diren eta egia deklaratuko dutela uste diat.

Gil Gilek instant batez gogartu zuen. Gero,  
pertsonea hilberari irmoki begira:

— Hau da... —esan zuen— paper horietaz  
jabetzen banaiz...

— Bihar bertan Elenarekin ezkondu hinteke.

— Ai jainko enea! —murmurikatu zuen gaz-  
teak oherantz beste pauso bat emanaz.

Han, berriz heriotzarengana tornatu egin zen.

Gortekoek ez zuten konprenitzen zer gerta-  
tzen ari ote zen Gil Gilen bihotzean, bakarrik  
zegoela uste zuten edo bere zientzia erromesak  
eragindako mirarizko ikuskariarekin gatazkan;  
baina hain zen handia sorrarazten zien ikara  
zeren inor ere ez zen etetera ausartzen.

— Esadazu —gehitu zuen zapatari zenak bere lagun beldurgarriarengana zuzenduz— eta nolatan ez ditu bada kondesak paper horiek jada kis-kali?

— Kondesa, gaizkile guztiak bezala, sineskeriazalea delako; noizbait damutuko ote zen beldurrez zegoen, paper hauek honelako egoera batean eternitaterako pasaporte izan zitezkeela asmatu zuelako... Inongo bekatarik, azkenik, bere hilketen arrastorik ezabatzen ez duela ekin-tza etengabea delako. Heriotzako orduan ahaz-tuko ote dituen izuaz, eta pauso beretatik atzera egin ezinean geldituko ote den bertuterako bidea aurkitu arte. Berriz dioskat paper hauek existitzen direla.

— Lortuz gero beraz, Elena nirea izango da... —errepikatu zuen Gil Gilek Heriotzak zoriona erakarriko ote zion zalantzatan jarriz beti.

— Beste oztopo bat zegok gainditu beharrekoa —erantzun zuen Heriotzak.

— Zein?

— Elena bere aitaren bitartez, kondesaren loba den Daimielgo bizkondeari emana dela.

— Nola! Maite al du?

— Ez, baina berdin zioz duela bi hilabete ezkonitz eman zuten eta.

— O!, dena alferrik da orduan —oihu egin zuten atsekabeturik.

— Ni gabe bai, hala izango huen —ezarri zuten Heriotzak—. Baina jauregi honetako atee-tan esan diat ezkontza bat galaraztera nindoala.

— Nola! Bizkondea hil al duzu?

— Nik! —esan zuten Heriotzak trufazko ika-raz—. Jainkoak libra nazala! Nik ez diat hil, hil egin duk...

— A!

— Ixo! Inortxok ere ez zekik oraindik! Bere familiak momentu honetan gazte gaixoa loaldian dagoela uste dik. Ea nolako jarrera duan beraz! Elena, kondesa eta dukea higandik bi urratseta-  
ra zeudek. Orain ala behin ere ez!

Eta honela esanez, Heriotza gaixoaren ohera hurbildu zen.

Gil Gilek pausoak jarraitu zizkion.

Gelan zeuden pertsonetarik askok, Montecla-  
roko dukea tartean, Gilen profeziaz bazekiten, Rionuevoko kondesa hiru orduren buruan hilko zela alegia. Denbora ia agortuta nabaritzean,

arestian alai eta itxura onean izatetik hala batean enbor bizi gabe bihurtzeraino pasa zen kondesa; aldizka dardara bortitzek astintzen zutelarik. Denak gure lagunari begira gelditu ziren sineskeriazko ikaraz eta idolatria porrokatuaz.

Kondesak bere aldetik, Gil antzeman bezain pronto, esku dardarati eta eskale bat luzatu zion, bestearekin bitartean bakarrik uzteko seinale eginez.

Ohetik urrundu ziren, bada, denak eta Gil hilurrenaren alboan jezarri zen.

# IX ARIMA

Gil Gilen etsai beldurgarria, Rionuevoko kondesak gure istorioan hain paper gorrotagarria betetzen badu ere, ez zen, beharbada askok imajinatu duen irudira, andere itsusi edo zahar-  
kitua edo itsusi eta zaharra hein berean. Kanpo-  
ko itxura (fisikoa) ere faltsua izan ohi da sarri.

Hilzori leinargi hau, hogeita hamabost urte inguruan zebilena, bere edertasun handieneko sasoian zegoen. Luze, mardul eta txit ederki egina zen. Itsaso urdina bezain urdin, bera bezain ixilkoi ziren begiak. Beren itxura bigun eta argalean kobazulo barrenak gordetzen zituzten. Ahoaren freskotasunak eta aurpegi alde morbidoek, apaintasun zeken hura ez oinazeak ez eta pasioak ere ez zuela landu adierazten zuten. Hori dela eta, orain etsi eta eroria, beldurraren menera eta sufrimenduak gainditua ikus-  
tean, arimarik latzenak ere nolabaiteko urrikal-  
tze arraroa, latzikararen tankerakoa nabarmen-  
duko zukeen.

Gil Gil, andere harengan gorroto bizia sentitu zuen hura, pena eta harriduraren arteko inpresioaren pean zegoen etengabe eta oharkabean gaixoak luzatu zion esku liraina hartuz, honela atera zitzaion barru barrutik erragunez baino tristuraz:

— Ezagutzen al nauzu?

— Salba nazazu! —Gil Gilen itauna jaso gabe erantzun zion hilzoriak.

Bat batean kortinen atzetik pertsonaia labaindu zen bi elkarrizketarien artera, ukondoa almohadan eta burua ahurrean jarriz.

Heriotza zen.

— Salba nazazu, arren! —errepikatu zuen kondesak, gure heroek gorroto ziola beldurra- ren ahotsak jakin arazirik—. Zu aztia zara... Heriotzarekin mintzatzen zarela diote... Salba nazazu!

— Hiltzearen beldur handiak zaude, andere! —erantzun zion gazteak hoztasunez gaixoaren eskua utziz.

Uzkurkeria alu hark, beste edonolako ideia edo grinari paso uzten ez zion izu basati hark, sakonki mindu zuen Gil Gil. Bere gaitz guztien



sortzailearen izpiritu berekoiairen neurria erakutsi ziolako.

— Kondesa! —esan zuen orduan—. Zure lehenaldi eta etorkizunean jarri ezazu gogo! Jaungoiko eta zure hurkoengan! Arima salba ezazu, gorputza jada zurea ez da eta!

— A! Hil egingo naiz! —oihu egin zuen kondesak.

— Ez, kondesa... Ez zara hilko!

— Ez naiz hilko! —poz basatiz egin zuen deia-dar.

Gazteak seriotasun berean jarraiki zuen:

— Ez zara hilko, behin ere ez baitzara bizi! ...Aitzitik, arimaren bizitzara jaioko zara, betirako sufrimendua izango dena, dohatsuentzat betirako zoriona den neurrian.

— A, hil egingo naiz orduan! —berriz murriratu zuen gaixoak bere bizitzako lehen aldiz malko ixurian.

— Ez kondesa ez zara hilko! —errepikatu zion medikuak maiestatetasun deskribaezinez—. Ez zara hilko negarrez ari zara eta. Arima ez da inoiz akabatzen eta damutzeak betirako bizitzaren atea irekiko lizuke...

— A! Jainko maitea! —orro egin zuen konde-  
sak noraeza krudelak ahitua.

— Ondo egiten duzu jainkoa deitzean. Arima  
salba ezazu! Berriz diotsut... Arima salba ezazu!  
Zure gorputz paregabea, buztinezko idoloa, zure  
izate biraotsua, betirako agortu dira. Bizitza ira-  
gangaitza, mundu honetako plazerrak, ederta-  
sun eta osasun haiek eta gordetzen hainbeste  
ahalegindu zinen aberastasun horiek, harrapatu  
zenituen ondasun guztiak; haizea, eguzkia, gaur-  
daino ezagutu duzun mundua, dena, dena galdu-  
ko duzu; dena desagertu da honezkero, biharko-  
an dena hauts eta itzalpe izango duzu, harrota-  
sun eta ustelkeria, bakardade eta ahantzia;  
arima baino ez duzu kondesa... Zure arimaren  
gainean pentsa ezazu!

— Nor zara? —galdegin zuen gorki hilurrenak  
Gil Gilarengan begirada harrিতua ezarriz—.  
Lehendik ere ezaguna zaitut... Gorroto didazu...  
Zeuk hilko nauzu... A!

Beta honetan Heriotzak esku zurbila ipini  
zuen gaixoaren buruan eta honda esan zion:

— Bukatu ezak Gil Bukatu..., tenorea hurbil  
duk eta.

— A! Ez dut hiltzerik nahi! —esan zuen Gilek—. Oraindik eginiko gaitz guztiez damutze-ko garaian dago! Bere gorputza salba ezazu eta arima nire eskuetan utzi!

— Bukatu ezak, Gil, bukatu —errepikatu zuen Heriotzak—. Tenoreak jo egin du eta.

— Emakume gajoa! —esan zion gazteak kupidaturik.

— Errukia didazu! —xamurtasun izugarritz erantzun zion kondesak—. Ez dut inoiz eskertu, sekula ere ez dut maite izan, zureganako sentitzen dudana ez dut inoiz sentitu... Nitaz kupidatu zaitez!...

— Esadazu, zure ahots tristatua entzutean bihotza bigundu egiten zait!

Eta egia zioen, une goren hartan izuz gainezka, kezka nahasirik, zigorraren beldurrez, lur gaineke bere edertasun eta urguiluz baztertua, hasia zen bere gogoetan ordurarte zokoraturik ixil eta ezkutuan egon zen arimaren lehen hatsak sentitzen; aldiro irainduriko arima baina pazientzia eta heroismoz betea; gaizkile eta biziozaleen alaba goibelarekin alderagarria, ixila, pentsakor, beren bistatik gorde eta etxeko baz-

terretan negar egiten duena, egunen batean azkenik, beraiengan nabaritzen duen lehen damutze izpian, adorea berrartu eta besoetara jaurtikiz, ahots garden eta zohardia, larretxoria- ren kantu, zeru soinu, bekatuen ilunpetik bertu- tearen egunsentirako diosala dirudien ahots hori entzuten uzten die.

— Nor naizen galdetu didazu —harridura ulertuz erantzun zion—, neuk ere ez baitakit! Zure etsairik amorratuena nintzen, dena den, orain ez dizut gaitzetsirik. Egiaren ahotsa entzun duzu, heriotzarena, eta zure bihotzak erantzun egin du! Jaungoiko laudagarria! Doluzko ohe honetara nire bizitzako zorientasuna eskatzera nentorkizun eta hura gabe ere gustura joango nintzateke... zure zoriona erein dudalakoan nago eta, zure arima salbatu dut eta! Zerutako jain- koa! Hona hemen etsaiaren irainak barkatu eta ongia eragin diodala! ...Atseginez..., Zoriontsua naiz... Ez dut gehiago eskatzen.

— Nor zara, bada, ume misterioitsu eta goren hori? Nor ote zara, hain on eta eder, nire hilzori- ko oheburura etorrita azken uneak hain eztitzen

dizkidazun hori? —galdegin zion kondesak Gil Gil eskuetatik antsiatz hartuz.

— Ni Heriotzaren laguna naiz! —ihardetsi zion besteak—. Ez zaitez bada, harritu bihotza baretzen badizut. Heriotzaren izenean egiten dizut berba eta honexegatik sinestu didazu. Munduko bakea den jainko errukitsu hark bidalia etorri natzaizu; lurretako egia, izpirituen garbitzailea, Jainkoaren mandatari, dena, ahantzia ezik, den hark bidalia. Ahantziak bizitzan dirau, ez heriotzan, oroit ezazu... eta ezagutuko nauzu.

— Gil Gil! —oihu egin zuen kondesak konortea galduz.

— Hilik al da? —galdegin zion medikuak Heriotzari.

— Ez, ordu erdi duzue oraino.

— Gil! —hasperen egin zuen hiltzariak.

— Bukatu ezak... —gehitu zuen Heriotzak.

Gaztea kondesaren gainean makurtu zen, honen aurpegi apainak edertasun eraberritu, liluragarri eta hilezkorrez distiratzen zuen, eta begi haietatik, bizitzaren suak argi malenkoniaitsu eta apaletan pitzatzen ziren haietatik; suak rarak margoturiko aho guratsu eta zirrikatu harta-

tik; esku leun eta sutsuetatik; atsekabe parega-beaz luzatu zion sama zuri hartatik; hain erregu zoroa, hain hitz iraunkor eta handia jaso zuen ezen batere zalantzatan ibili gabe, ohetik alden-du.

Monteclaroko dukea, apezpikua eta ganbaran zeuden nobleetarik beste hiruri honela mintzatu zitzaien.

— Entzun ezazue jainkoarengana itzuli den arima baten aitormena.

Aipatu pertsonaiak kondesarengana bildu ziren Gil Gilen hitzok harro bestearen aurpegi argituak bultzaturik.

— O! Duke! —Monteclarokoa ikustean hortartekatu zuen kondesak—. Nire aitor-hartzailak giltza bat dauka... Jauna —jarraiki zuen, apezpikuari oraingoan— eskaiozu! Ume hau, mediku hau, aingeru hau, Rionuevoko kondea, ene senarra zenaren berezko semea duzue; hiltzekotan zegoela, duke, berarentzat Elenaren eskua eskatuz eskutitz bat idatzi zizun. Giltza horrekin..., nire gelan... paper guztiak... Faborez!... Nire agindua da!

Esan eta almohadan erori zen, begi itsuan, aurpegi koloregabez.

— Azken hatsean dago —esan zuen Gil Gilek—. Zaude berarekin jauna —gehitu zion apezpikuari—. Eta zu duke jauna, entzun idazu...

— Hago! —esan zion Heriotzak belarrira.

— Zer besterik! —erantzun zion.

— Ez diok oraindik barkamena eman.

— Gil Gil! ...Zure barkamena! —toteldu zuen zorigaitzekoak.

— Gil Gil! —Monteclaroko kondeak oihu eginenez—. Zu al zara?

— Kondesa, neuk barkatzen zaitudan bezala Jainkoak barka zaitzala! Bakean hil zaitez! —esan zuen ahoskera erlijioitsuaz Crispina Lopezen semeak. Supituan Heriotza kondesaren gainera makurtu eta ezpainak bekokian ezarri zizkion.

Musu hark gorpu baten bularretan izan zuen oihartzuna.

Hildakoaren aurpegitik behera malko hotz eta nahasia labaindu zen.

Gilek bereak xurgatu eta Monteclarokoari zuzenduz.

— Bai, duke jauna, neu nauzu.

Apezpikuak ohe buruan hilezko errezotan ziharduen. Bien bitartean Heriotza desagertu egin zen.

Gau erdia zen.



# X

## BIHAR ARTE

— Paperok bilatu itzazu duke jauna —esan zuen Gilek— eta faborez Elenarekin hitz egin ezazu...

— Zatoz mediku jauna zatoz! Errege azken hatsetan dago —oihu egin zuen Migel Guerratarrak Heriotzaren lagunari moztuz.

— Jarrai idazu, duke jauna —esan zuen errespeto handiz gazteak—, hamabiak jota dira eta oso berri garrantzitsua jakin arazi ahal dizut; ez dakit ona ala txarra den. Hau da: Luis I oraintxe bertan has den egun honetan zehar hilko denentz.

Hala zen, bai, Luis I.ak sortzaileari izpiritua eskaini behar zion abuztuak hogeita hamaikagarrarena hasia zen.

Gil Gilek ziurtasun osoz zekien hura, Heriotza ganbara erdian zutik begiak gaixo noblearengan tinkaturik ikusi baitzuen.

— Gaur hilko da errege —esan zion belarrira Gil Gilek—. Albiste hau Elenarentzako ezkontza-

oparizat hartu ezazu. Opari honen garrantzia ezagutzen baduzu, sekretuan gorde eta Felipe V. arekiko jokaera-arautzat balio diezazula.

— Elena beste bati dagokio ordea... —bota zion dukeak.

— Rionuevoko kondesaren loba, gaur arratsean hil da —moztu zion Gilek.

— O! Zer arraio gertatzen zaigu? —esan zuen dukeak—. Nor zara, bada, umetan ezagutu eta orain zure botere eta jakinduriaz asaldatzen nauzun hori?

— Erreginak hots egin dizu... —esan zion une horretantxe andere batek oraindik bere harriduran murgilduta zegoen Monteclaroko dukeari.

Anderea Elena zen.

Dukea erreginarengana abiatu zen gela erdian amorante biak bakarrik utzirik.

Bakarrik ez, zeren hiru pausotara Heriotza zuten.

Elena eta Gil Gil zutik geratu ziren, elkarri begira, hitzik asmatu ezinean, elkar ikustearen izuan bezala, beren elkarrekin egote hura amets hutsa bailitzan eta eskua luzatu edo hasperenik xumeena botatzean esnatuko zirelakoan.

Arratsalde hartantxe ere leku hartan bertan topatzean, alaitasun zoroaren erdian zeudela, halako estuasun sekretua nabarmendu zuten; bi lagunek batak bestea ikusi gabeko denbora luzea igaro ondoren kartzela batean oinazearen eguna argitzean, jakin gabe oker gaizto baten kide edo eraso beraren jasale, elkar berrezagutu balute bezala.

Gil eta Elenak nabarituriko poz mingarria, senar hilotz zelatiaren plazerrezko irribarre mingotsaren antzekoa dela esan genezake, hilobia-  
ren barrutik gau batez kanposantuko atea ireki eta lurperagaia bere emaztearen gorputza dela konprenitzean.

— Hemen zaude! —esango luke hildako gairxoak—. Hemen zaude! ...Duela lau urtez geroztik gau eta egunak bakarrik zenbatzen ditut munduan zertan ote zenbiltzan pentsatuz, zu, eder bezain eskergaitz, nire heriotzatik urtebetera lutuzkoa baztertuko zenukeen hori. Baina hemen zaude jada, Gure artean amodioa ezinezkoa bada ere, maltzurkeriak ere ez dira posible eta are gutxiago ahantzia. Ezezkoiki gara bata bestearentzat! Ezerk lotzen ez gaituen arren lotuta

gaude. Ezerk ere aldentzen ez gaitu eta. Bizitza-ko jelosa, jakineza eta zabuen orde, maitasun eta oroimenezko betikotasuna iritsi zaigu. Dena barkatzen dizut!

Hauexek ziren, Gil eta Elenaren izaerez gozoturik, Elenaren xalotasun, Gilen adimen izugarria eta bion bertute handien leuntasunez, amorante bien ariman argitzen ziren ideiak, hilezko zuziak bailiran, zeintzuen argitan amodio baketsuzko etorkizuna ikusten zuten, lokaztezina, gertaturiko guztia amets iragankorra ez izatekotan behintzat.

Elenaren begi urdinak Gil Gilen begi ilunetara amiltzen ziren, zeru garaiak gure gauetako ilunpeetako ilunpeetara alferrik argi izpiak igortzen dituen erara; Gilen begi beltzak Elenaren begi zeru-garden eta garbietan galtzen ziren bitartean, ikusmena, gogoia eta sentimendua ere, tartemugagabeetako handitasuna neurtzean debalde nekatzen diren erara.

Honela jarraituko zuketan ez dakigu zenbat denboraz eternitate osorako uste dugu, Heriotzak Gil Gilen arreta zirikatu ez balu.

— Zer nahi duzu bada —esan zuen gazteak.

— Zer izango duk bada —erantsi zuen Heriotzak—. Ez begiratzeko luzeago!

— A! Zuk ere maite duzu! —esan zuen Gilek zeharo larriturik—. Bai... —erantzun zuen Heriotzak gozo.

— Harrapatu egingo didazu!

— Ez! Elkartu egingo zaituztet!

— Egun batean aipatu zenidan zureak eta nireak ezik beste besok ez zuela estutuko... —murmurikatu zuen Gilek etsipenaz.

— Norena izango da lehenengoz. Nirea ala zurea? Esadazu!

— Zeloak dituk ala?

— Izugarriak!

— Gaizki egina! —esan zuen Heriotzak.

— Norena izango ote lehenengo? —errepikatu zuen gazteak bere lagunari esku hotzetatik helduz.

— Ezin diat erantzun, jainkoa, hi eta nire artean dabil dantzaz Elena. Baina ez gaituk batera ezinak.

— Ez duzula hilko esadazu! Mundu honetan elkartuko gaituzula esadazu!

— Mundu honetan! —isekaz errepikatu zuen Heriotzak—. Mundu honetan izango duk bada... Neuk diotsat.

— Eta geroago?

— Geroago Jainkoarena izango duk.

— Eta zurea?, noiz?

— Nirea..., izana duk nirea!

— Zoratu egingo nauzu. Elena bizirik al dago?

— Hi bezala!

— Baina... ni bizirik al nago?

— Sekula baino biziago.

— Hitz egin ezazu kupidaz!

— Ez diat ezer kontatzeko. Oraindik ezin didak ulertu. Zer ote duk hiltzea? Galdetu al diok inoiz hire buruari? Zer duk bizitza? Inoiz erantzunik izan al duk? Berbon baliorik ez badakik zertara galdetzea bizirik ala hilda hagoen?

— Noizbait, halere, ulertuko al ditut? —atsekabeturik galdetu zion Gilek.

— Bai... bihar.

— Bihar! Ez dizut konprenitzen.

— Bihar Elenaren senarra izango zara eta.

— A!

— Eta ni ezkonlagun izango nauzue -jarraitu zuen.

— Zu! Hilko al gaituzu akaso?

— Ez horixe. Biharkoan aberats, noble, ahaltsu, zoriontsu izango haiz. Bihar ere dena jakingo duk.

— Maite nauzu orduan —esan zuen Gilek.

— Maite haudan?, esker gaiztoko hori! Zalan-tzarik ba al duk bada?

— Bihar arte bada —esan zuen Gilek itzal bel-durgarriari eskua eman ez.

Elenak zutik zirauen Gilen parean.

— Bihar arte —erantzun zuen berak esaldi hura entzun izan balu bezala, beste ahots ezkutu bati erantzun antzean, gaztearen gogoetak asmatuko balitu bezala.

Poliki buelta eman eta errege-ganbaratik irten zen.

Gil erregeren ohandzerantz joan zen.

Monteclaroko dukeak gure lagunaren saihe-tsean jarriz honela esan zion ahots erdiz:

— Bihar arte... Erregea hiltzekotan bihar gau-zatuko da Elena eta zure arteko lotura. Erreginak Rionuevoko bizkondearen heriotza jakinarazi

berri dit. Zuen ezteiak iragarri dizkiot eta biho-  
tzez txalotzen ditu. Luis I.a benetan gaur hilerri-  
ra jausten bada bihartxe gorteko lehen pertso-  
naia izango zara.

— Ez zalantzan jarri duke jauna! —erantzun  
zuen Gilek hilobi ahoskeraz.

— Bihar arte orduan —errepikatu zion prestu-  
ki Monteclarokoak.



# XI

## GIL, BERRIZ ZORIONTSU ETA IPUINAREN LEHEN ALDIAREN BUKAERA

Biharamunean, 1724.go irailak batean, goizeko bederatzietan, Rionuevoko jauna saloi batean alderik alde paseatzen zegoen.

Jauregia berea zen, kondea baitzen zegoeneko eta Monteclaroko dukea eta Toledoko apezpi-kuaren artean kondesak esaniko zokoan aurkitu zituzten paper eta testamentuek hala zioten.

Aurreko gauean, gainerako, mandatari batek Felipe V.aren partez, berriro ere San Fernando-ren tronoan zegoelarik, ganbara-mediku titulua, Egiaren duketzat izendatzea eta hogeita hamar mila peso urretan eskuratu zion.

Hurrengo egunean Monteclaroko Elenaren ezkontza burutuko zen azkenean.

Heriotzari dagokionez, aurreko goizetik Luis I.aren arima eramanez jauregitik irten zenetik, erabat galdu zuen bistatik.

Alabaina, gure gazteak ongi gogoratzen zuen aitabitxi gisa joatea eskaini ziela, eta ikus ezazue hain pentsakor alde batetik bestera ibiltzeko arrazoia.

— Hara hemen —zioen— noble, aberats eta ahaltsu naizela; hara hemen itsu itsuan maite dudan anderearen jabe naizela...; eta, hala ere ez naiz zoriontsu. Bart Elenari begira nengoela, eta geroago Heriotzarekiko azken solasaldian, ez dakit zer nolako misterio ikaragarri begiztatu dudan. Babestu nauen argitasun gor-bizi horrekin harremanetan moztu egin behar dut, esker-gaizkeria izango da... hala bedi! Izango du denborarekin, mendeku hatzeko aukerarik. Ez... ez dut Heriotza gehiagotan ikusi nahi! ...hain zoriontsu naiz!...

Duke berria Heriotzarekin elkartzerik ez izateko, bizitzeko azken orduan ezik, modua hausnartzen jarri zen.

— Jakina da —jarraitu zuen— Jainkoak nahi arte hilko ez naizena. Heriotzak berez, ez dit kalterik erakarriko, ez baitago bere esku nirea edo Elenaren hiltzea azkartzea. Gakoa orduan, ordu guztietan ez ikusi eta ez entzutean datza. Bere

ahotsak ikaratu egiten nau, bere esanek atseka-  
betu, bere hitzaldiek bizitza eta gauzekiko mes-  
pretxua besterik ez didate sorrarazten. Nolatan  
baztertuko ote dut ameskaitz hori? ...A! Bada-  
kit!.. Heriotza, hiltzeko ezer egon denik ikusi  
gabe, Elenarekin soilik, bake santuan utziko nin-  
duke, ahalik eta Gorenenak hala adierazirik,  
zuzenean gutariko baten bila agertu arte. Eta  
bitartean Madrilen ere ikus ez dezadan, begiak  
estalirik biziko naiz.

Azken burutazio honek liluraturik, gure gaz-  
tea pozez gainezka zegoen, gaixotasun bukaezin  
batetik sendatu berria balego bezala eta men-  
deen agortzera arte lurra gainean ziurtaturik bai-  
litzan.

Hurrengo arratsean, seiak aldera, Gil Gil eta  
Elena ezkontzaz lotu ziren, konde eta duke  
berriak Guadarramaren magalean zuen landetxe  
batean.

Sei t'erdietan itzuli ziren Madrilerla laguntzai-  
leak eta gure ezkon berriak lorategi abartsu  
batean gelditu ziren bakarrik. Gil Gil zenak ez  
zuen berriz Heriotza ikusi.

Eta hementxe amaitu liteke lasai asko istorio hau; hementxe ordea, hasiko da benetan interesgarri eta argia izaten.

## XII

# EGUZKIA SARTALDEAN

«Maitale eta maitatua zen; laztandu zuen eta laztandua izan zen, naturaren legearen atzetik, amorante bien arimak hilkor balira bata bestearekin nahastean, agortu egingo ziren pasioaren hordialdian.»

Lord Byron

Gil eta Elenak elkar maite zuten, bata bestearen jabe, libro eta bakarrik ziren.

Hurtzaroko oroitzapenak, bihotz taupadak, beren gurasoen nahiak, zoriak, jaiotzak, jainkoaren benedikazioak, denek lotzen zituzten elkarren artean.

Txikitan plazerrez jostatu zirenak pubertaroan elkarrekin gustatu zirenak, bestearen gabeziaren oinazez ordu bereetan negar egin zutenak, Gil eta Elena, Elena eta Gil, Jainkoaren erabakiz alden ezinezko bi arima haiek galdu zuten azkenean, hain tenore mistiko eta garrantzitsuan, norbere bakardade bihozgabea, abentu-

raz ugariko geroaldian nahasteko, mendi-zoko berean sorturiko bi erreka bezala, eta elkarrengandik urrunduak beren bide okerretan zehar, itsasoko bakardadean berriz ere bildu eta berdintzeko.

Arrats gorria zen, baina egun bakar batekoa beharrean, munduaren esistentziaren arratsa zirudien, sorkuntzaz geroztiko denbora osoaren arratsaldea.

Eguzkia malenkoniatsuki sartaldera gainbeheratzen zihoan. Mendebaldeko argi sendoek landetxeko aurea urreztatzen zuten, zurrundi zabal bateko orri berde eta luxutxoen artetik ezkonberriak babesten zituen tartera barneratuz. Haizea, soseguz eta epel, urteko azken loreak, arboletako adarretan geldirik zeuden txoriak, natura osoa, bada, mutu eta harriduraz zegoen, egun hartako amaieraren lekuko ziren gizakiek ikusiko zuten azkena bailitzan; ekia hurrengo egunean hainbat eta hainbat goizetan etengabe hainbeste mendetan zehar, dohatsu eta eskuzabal, gazte eta bizi, berriz ere agertuko ez bailitzan.

Gune hartan denbora gelditurik suertatu zela zirudien, orduak, dantzaren dantzaz akiturik belar gainean eseriak zirela, atsedenean heriotza zein amodiozko istorio ukigarriak kantatzeko asmotan; gazte internatuen antzera, jokoaren nekez, komentu bateko lorategian borobilean jarriz umetako gorabeherak eta geroxeagoko ametsetaz iharduteko.

Momentu hartantxe ere munduko historiaren garai bat bukatzen zela antzematen zen; sorturiko guztia betirako agurtu egin zela: txoriak habiari; haizekoak loreei; arbolek errekastoei; eguzkiak mendiei; denak bizi izan ziren elkartasun mamitsuan, elkarri kolore edo usain, doinu edo dantza emanaz eta unibertso taupadaren batean bertan nahasiz, betirako eten bat suertatu zela eta aurrerantzean elementu haietarik bakoitza lege eta eragin berriren mendera geldituko zirela.

Ludien elkartasun eta oreka dakarren bilera misteriotsua arratsalde hartan desegingo zelako seinale ziren; sortua zen gairik hutsalena ere hilezin bihurtzen duen batuketa; materia eten-gabe aldatu eta berpiztu egiten duena; ororen

jabe eta irensele; dena berritu eta edertu egiten duena.

Ezer eta inor baino gehiago, begi-zizta eta liluratze arrotz honek eraginda, geldirik, ixil ere, eskutik lotuta, egun hartako (beren zorigaiztoaren azkena) Heriotza agurgarria buruan zutela, elkarri lehia sakon eta itsuez begira zeuden, uni-bertsoaz ahaztuta, burua huts, bi erretratu, bi estatua, bi gorpuren antzera.

Agian lur gainean bakarrik; agian mundu honetaz kanpo zeudela uste zuten.

Beren ezkontzako lekukoak desagertu zirenetik, haien pauso hotsa bidean urrun galdu, munduak txit abandonatu zituenetik, ez zioten elkarri hitzik esan, deus ez, elkarri begiratzearen plazerrean zoraturik.

Hantxe zeuden, belarrezko bankuan eserita, lore eta berdez inguru; begi bistan zero zabala, libro eta bakarrik itsas handietako basamortuetan olatuek kuluxkatu itsas-belar baten gainean bi kaia balira bezala.

Hantxe zeuden; alaitasun beraren zikoitz, zorientasunaren kopa eskuetan, ezpainak bertara eramatera ausartu gabe, dena amets ote zen



beldurrez, edo sentitzen zutena ez galtzearren zorion handiagorik espero gabe.

Hantxe zeuden, azkenik, ezjakin eta birjin, eder hilezkor, Adan eta Eba paradisuan bekatua aurretik zeuden modura.

Elena, hemeretzi urtetako neska garbia, edertasun sendoenean zegoen edo hobe esan emakumearen une iheskorrean, non sorginkeria guztien eta naturaren jabe, zeruko benedikazioz eta zoriontasun esperantzaz betea, dena sentitu dezakeen arren oraindik ez duen ezertxo ere sentitu, emakume eta neskatxo da une berean. Eguzkiaren errainuetara irekiriko arrosa, hosto guztiak zabalik, edertasun oro eskainiz, haizeak laztandurik, oraindik lore-kusku lotsatien itxura, kolore eta usaina gorderik duena.

Elena luze zen, lirain, dena liluragarri, eder eta artezkoa. Bere buru borobila, adats horiz koroaturik, lotune aldera urrez eta kizkur sendo-enetan nabar, ausardiaz aurreratzen zen Junoren antzerako lepo zuri eta biribil aldera. Eta hala zen, bai, Elenaren begiradan, eternitatearen argia zetzan, mundu honetakoa ez zen izpiritu garbia, pasio hilezkorra. Ilunabarreko ura bezala-

ko bere azal zurbilak, nakarraren gardena eskaintzen zuen, baina ez odolaren gorririk: zain mehe bat edo bestek, zero kolorez, eteten zuen hain zuritasun barea. Marmolezkoa zirudien.

Aingeru aurpegi hark halere, emakume ahoa zuen. Sagarrondoaren lorea bezain gorrista, perlen altzoaren antzera heze eta distiratsu, zabalik mantentzen zuen hasperen epel eta lizunean lurrunperatuta. Pigmalionek moldatu estatuarekin konpara zitekeen Elena, artista lehendabizi musukatzekotan ezpain sorginduak mugitu zituenean.

Elena zuriz jantzita zegoen eta honek bere apaintasun itsugarria goratu egiten zion. Hala eta guztiz, arrokek mozorrotzen ez duten horietako emakumea zen. Berarekin, Minerva noble fedegabeekin bezala gertatzen zen: jantzi artetik edertasun olinpikoa asmatzen uzten dute eta. Emazte berriaren joritasun bukatua, erabat igartzten zen zeta eta farfail artetik. Gorputzak jantzi zuriaren tolesduretatik argia lekoratzen zuelako itxura ematen zuen, naiade eta nereidek gorputz limuriezuhinen hondoa argitzen duten legez.

Halakoxekoa zen Elena ezteietako arratsean... eta halaxe begiratzen zion Gil Gilek: halaxe zen berea!

# XIII

## ILART-ILUNEA

«Nunca pusieran fin al triste lloro  
los pastores, ni fueran acabadas  
las canciones que sólo el monte oía,  
si mirando las nubes coloradas,  
al transmontar del sol,  
bordadas de oro, no vieran que  
era ya pasado el día.  
La sombra se veía  
venir corriendo aprisa,  
ya por la falda espesa  
del último monte...»

*(Garcilaso)*

O! Bai, gazteak begiratzen zion, itsuak eguzkiari begiratzen dion erara, izarra ikusi gabe betazal hiletan berotasuna nabaritzen duelarik.

Bakardade eta atsekabeetan hainbeste urte, hilezko ameskeriatan hainbeste ordu igaro ondoren, bera, Heriotzaren laguna, bizitzazko itsas handian, argi, esperantza eta zorion hutsezko munduan jostatzen zen.

Zertan pentsatu behar zuen?, zer esan behar, bada?, zorigaiztokoak, oraindik bizirik zegoenik ere ez zuen eta sinesten, emakume hura Elena zenik, haren senarra zenik, biok Heriotzaren hatzaparretatik ihes eginak zeudela ere ez zuen eta sinesten?

— Hitz egin ezazu, nire Elena! Dena konta idazu! —esan zuen Gil Gilek eguzkia sartu eta txoriek ixiltasuna hautsi zutenean—. Hitz egin ezazu ene bihotz!

Orduantxe kontatu Zion Elenak azken hiru urte haietan pentsatu eta sentitu zuen guztia: Gil Gilengandik urrundu zeneko pena, Frantziara joan zeneko etsipena, nola abiatzeko momentuan bere jauregiko atean ikusi zuen, nola Montecclaroko dukeak amodio hura gaitzesten zuen, nolako zoriona San Millango eliz-atarian aurkitu zuenean hiru egun lehenago, zenbat sufritu zuen mindurik erori zenean kondesaren esanak eraginda... den dena kontatu zion. Guzti honek, epeldu ordeztu maitasuna areagotu egin baitzuen.

Gautzen hasia zen, eta ilunpeak gizendu ahala, Gil Gil asaldatzen zuen itolarria baretuz zihoan.

— O! —pentsatu zuen Elena bihotz aldera erakarriz— Heriotzak nire arrastoa galdu du eta ez daki non nagoen. Ez da hemen agertuko, ez! Gure amodio hilezkorra kutsatu egingo luke! Zer egiterik luke bada Heriotzak gure alboan? Zatoz, zatoz gau goibel hori eta zure oihal beltzean bil gaitzazu! Zatoz, betirako bada ere! Zatoz, bihar-ko egun argia berriro ikusiko ez badugu ere!

— Dardarka ari zara Gil...! —toteldu zuen Elenak— Negarrez...!

— Nire emazte —murmurikatu zuen gazteak—, nire zeru hori!, zorionez ari naiz negarrez!

Hau esanda, eskuartean esposaturikoaren buru sorgina hartuz, honen begietan begirada zoro, sakona, bizia ezarri zion.

Gil eta Elenaren ezpain tartean, hasperen kiskalgarri eta estalia, pasio hordizko oihua konfunditu zen.

— Maite hori! totalkatu zuten biek lehen musuaren zoroaldian, honek oparituriko doinuan bakardadeko izpirituak ikaratzuz.

Bat batean ilargia irten zen, osoa, distiratsu, ederra.

Haren argi esperogabe eta liluragarriak senar-emazte biak asaldu egin zituen, batera ekialdera burua zuzendu zutelarik, ez dakigu zein ahots ezkutak eraginda elkarrengandik aldenduz, baina esku dardarati eta une hartan hilobia alabastroa bezain hotz eta kuzkurtuak, askatu gabe.

— Ilargia da! —biek ahoskera orrotuaz.

Elkarri begiratzera tornatu ziren berriz eta Gilek grina definiezinez luzatu zizkion besoak Elenari, etsi bezain maitemindua.

Baina Elena hilotza bezain hori-zuri zegoen. Gogokuzkurtu egin zen Gil.

— Elena... zer duzu? —esan zion.

— O Gil! —erantzun zion neskatxoak—. Oso zurbil zaude!

Une honetan ilargia ilundu zen, bera eta gazte bien artean laino bat bitartekatu balu bezala.

Baina, ai! ez zen, ez, laino bat!...

Itzal beltz luze bat zen. Gil Gilek eserita zegoen belar artetik ikusita, zeru eta lurretan ukitzen zuen, ia ostertz osoa lutoz jantziz.

Irudi eskerga zen, irudimenak handitua akaso...

Izaki beldurgarria zen, soineko luzanga eta ilunean bildua, beren aldamenean zutik, geldirik, ixil, beraren gerizpean estaltzen zituena.

Gil Gilek nor zen berehala asmatu zuen.

Elenak ez zekusan pertsonaia goibela... Elenak ilargia zeukan begietan.



## XIV

# AZKENEAN... MEDIKU!

Gil Gil bere amodioa eta Heriotzaren artean zegoen kokaturik, bizitza eta herioaren artean alegia.

Bai, zeren bera eta ilargiaren bitartera azaldu zen itzal goibel hura, Elenaren azaleko pasioaren distirak lanbrotuz, gure heroearen lagun fidela zen zorigaiztoak bere buruaz beste egitea pentsatu zuen gau hits harrez gero.

— Kaixo, lagun! —esan zion gau hartan bezalaxe.

— A, ixildu zaitetz! —murmurikatu zuen Gilek, aurpegia eskuez gordetzen zuelarik.

— Zer duzu ene maitea? —galdegin zion Elenak senarraren itolarrian erreparatuz.

— Elena!.. Elena!.. Ez nigandik aldendu! —oihu egin zuen gazteak atsekabeturik beso ezkerre esposatuaren lepo inguruan zuelarik.

— Hitz egin behar diat —gehitu zuen Heriotzak Gil Gilen esku eskuina heldu eta emeki bereganatuz.

— A! Zatoz! ...Sar gaitzen! —zioen neska-  
txoak landetxe aldera bultzatuz.

— Ez! Hator!.. Irten gaitzen! zioen Heriotzak  
lorategiko atea seinalatuz.

Elenak ez zuen Heriotza ikusi ez eta entzuten  
ere. Fabore triste hau Egiaren dukearena zen  
soil-soilik.

— Gil... Hire zain nagok! —gehitu zuen per-  
tsonaia okerrak.

Zorigaiztokoa hezur-mamiraino latz-ikaratu  
zen. Malko ugari ixuri zitzaion begietatik Elenak  
bere eskuz xurgatu zituenak. Honen besoetatik  
jalgi eta zoroaren moduan egin zuen korrika  
lorategian zehar, negar-zotin lazgarri artean  
oihuka:

— Hil, orain hil behar!

Elenak jarraiki nahi izan zion, baina, ziurrena  
senarraren egoerak sorturiko izuaren eraginez,  
lehen pausoa aurreratzean ziplo erori zen bela-  
rretan konortea galduta.

— Hil, hil egin behar —jarraitzen zuen gaz-  
teak doluz gainezka.

— Ez beldurrik izan! —erantzun zion Herio-  
tzak, atseginki bereganatuz—. Gainera alferrik

duk niri ihes egitea, kasualitateak berak bildu gaitu eta nolana ere ez haut utziko.

— Zertara etorri zara bada, ordea? —garrasi egin zuen gazteak haserre tonuan, malkoak xurgatuz, erregua baztertuz bezala eta erronka antzean Heriotzari aurre eginez—. Zertara etorri zara hona, erantzun ezazu!

Eta begi gorrituak jiratu zituen ama baten bila bailitzan.

Harengandik gertu, lorazain zenaren aitzurra aurkitu zuen; esku dardaratiaz harrapatu, aldean jaso zuen kanabera bigunaren modura (etsipenak indarra bikoiztu egin zion) eta hirugarren aldiz behin ere baino suminduagoa:

— Zertara etorri zara?

Heriotzak barre algara filosofikoa nonbait, bota zuen.

Barre honen oihartzunak luze iraun zuen, lorategiko lau hormetan jo eta bere doinu danbatsuaz, hildakoaren hezurak bata besteen kontra jotzen duteneko klaxkada gogoraraziz.

— Hil egin nahi nauk! —oihu egin zuen lutozko izakiak— Bizitza, Heriotzaren aurka ausartu al da? Bai gauza bitxia, borroka egin dezagun!

Honela esanda eta soin-gaineko luze beltza atzerantz boteaz, besoa beste mota bateko aitzurraz armaturik (igitaia edo sega errez zitekeena), Gil Gilen parean ipini zen borrokarako prest.

Ilargia ostiral sailduetan elizak argitzen dituen argizariaren kolore beilara tornatu zen; hain haize hotz jaso zen ezen fruituz gainezkatu-riko arbolak minez aiezka jarri baitzituen; zakur askoren zaunka urrutia entzun zen, edo hobe, hilezko zoriaren ulu luzeak, eta han goi goian hodeien erreinuan hil-kanpai ugariren doinu hotsa entzun omen zen.

Gil Gilek guzti hau somatu eta arerioaren aurrean erori zen belaunikotz:

— Faborez, barka nazazu! —esan zion itolarri ikaragarriaz.

— Barkatuta hago —ihardetsi zion Heriotzak sega gordetzen zuen bitartean.

Eta naturaren hilezko nahasmen hura Jainko beltzaren suminetik etorria bailitzan, honen ezpainetan irribarre bat argitu ahala, eguratsaren hotza baretu, kanpaiak eta zakurrak isildu

eta ilargiak gau hasieran bezain gozo distiratu zuen.

— Nire aurka ahalegindu haiz! —esan zuen Heriotzak humore onean—. Mediku azkenean! Altxa hadi zoritzarreko hori, altxa eta eskua emaidak. Gau honetaz ezeren beldur ez izateko esan diat.

— Baina zertara etorri zara hona bada? —errepikatu zuen gazteak zalantzak are joago—. Zertara etorri zara? Nolatan nire etxean? Zu nor-bait hil behar duzunetan soilik sartzen zara! ...noren bila zabilta?

— Dena esango diat... eseri gaitezen istant batez —erantzun zion Heriotzak Gil Gilen esku izoztuak laztanduz.

— Baina Elena... —murmurikatu zuen gazteak.

— Utziok bakean! Momentu honetan lo dago; berari begira nago ni, goazen bada mamira. Gil Gil... eskergaitza haiz! Denak bezalakoa! Behin gailurrean, igo haizen eskailerari ostikada bat ematen diok. O!, hire nirekiko jokaerak ez dik Jainkoaren barkamenik, azken egunotan zenbat pairarazi didaan! Zenbat, zenbat!

— Ai! ...Maite maite dut! —atera zitzaion Gil Gili.

— Bai horixe, maite maite duk! Betirako galdua huen, hi zapatari ziztrina eta bera jauntxo batekin ezkontzekotan zegoen; tartera azaldu ninduan, aberastu egin hindudan, jaun, prestu, ospetsu, hire etsaia desagerrarazi, hire arerioarekin bakea lortua, beste mundura eraman diat, Elenaren eskua azkenean, eman egin diat. Eta noiz eta oraintxe eman didak bizkarra. Nitaz ahaztu eta begietan ikus ez nazaan oihala ezarri duk... ergel hori! Beste gizon guztien antzera burugabea; irudimenaz beti kontu egin beharko lidaketen horiek, munduko handikeriazko oihala jartzen ditek eta bila joaten natzairen arte niri oroimenik eskaini gabe bizi dituk. Zoritxarrekoa nauk! Behin ere ez nauk gizaki batengana hurbildu, hura izutu, beldurtu gabe, inoiz nire azaltzea espero ez balu bezala. Ehun urtetako atso-agureek ere ni gabe bizi daitezkeela uste dute! Herorrek, zentzu fisikoen bitartez ni ikusteko faborea duana, eta edonola ahaztu ez nintzakean horrek, lehengoan begi aurrean achantzi materiala ezarri huen, trapuzko oihal bat, eta

gaur lorategi bakarti batean giltzaperatu eta nigandik betirako libro sentitzen haiz! Ergela! Alua! Lagun gaiztoa! ...Gizon! ...Eta honek dena adierazten dik!

— Ederki... —toteldu zuen Gil Gilek, lotsak zein nahaspilak jakin nahietatik etsiarazi ez ziotelarik—. Zertara etorri zara, bada, nire etxera?

— Betirakoak hire aldamenengan egokitu didan egin beharra burutzera hain zuzen.

— Ez al zatoz bada, gure hiltzera?

— Ezta inolaz ere!

— A! ...Orduan...

— Hala ere, hire ikustea daukadanez, edo heuk nire ikustea hobeto esanda, nitaz berriro ere ahantz ez hadin zenbait neurri hartu beharrean nagok.

— Eta zer nolakoak dira neurri horiek? — itaundu zuen Gilek sekulako dardara artean.

— Zenbait agerpen garrantzitsu jakinarazi beharrean nauk.

— A!, zatoz bihar!

— O!, ez, ezin. Gaurko gure elkartzea ezin hobe duk.

— Nire laguna! —oihu egin zuen gazte gaixoak.

— Horixe baietz! —erantzun Zion Heriotzak—, hire lagun naizelako nirekin eraman behar haut.

— Nora?

— Nire etxera.

— Zure etxera! Hiltzera zatozkit bada, orduan! Ah ankerra! Eta hori da zure laguntasuna! Hau eztenkada! Zoriona ezagutarazi eta berehala lapurtu egiten didazu! Zergatik gau hartan ez ninduzun hiltzen utzi?

— Hago ixilik, zorigabekoa —errepikatu zuen Heriotzak tristura nabariaz—. Zoriona ezagutu duala diok! Heure burua engainatzen ari haiz! Horretara noak ni! Hura ezagut dezaan!

— Nire zoriona Elena da! Beste guztiak bost axola dit!

— Bihar argiago ikusiko duk.

— Hil nazazu bada! —oihu egin zuen Gilek etsiturik.

— Ezinezkoa huke.

— Bera hil ezazu orduan! Biok hil gaitzazu!

— Burua galdu duk!



— Zure etxera joan, ene Jainkoa! Utzidazu hala ere, ene maitearengandik agurtzen, utzidazu agur esaten.

— Ados nagok. Esnatu zaitez Elena! Zatoz! Neure agindua da! Begiraiok... Bazetorrek...

— Eta, zer esango diot? Zein ordutan izango dut itzultzerik gaur gauean?

— Egunsentian egongo zaretela esaiok.

— O! Ez!, nik ez dut zurekin horrenbeste ordu egon nahi! Gaur inoiz baino zure beldurrago nauzu.

— Argi ibili nirekin!

— Ez zaitez sumindu —esan zuen senar atsekabeak—, ez haserre eta egia esadazu. Benetan egunsentian elkar ikusiko dugu Elenak eta biok?

Heriotzak eskuin eskua jaso zuen handikiro eta zerurantz begira honela zioen bere ahots goibelak:

— Zin egiten diat!

— O, Gil! ...Zer da hau? —esan zuen Elenak arbola artean aurreratuz, zurbil, lirain eta ilargiaren gorpuzte mitologikoa bezain distiratsu—.

Gilek, lurpetatik ateratakoa bezala zurbil ere, ilea desegina, begirada okerra, bihotz antsian,

Elenaren bekokian musu egin zuen eta hilobizko ahoskeraz esan zuen:

— Bihar arte. Zain egon zaitez, ene bizia!

— Bere bizia! —murmurikatu zuen Heriotzak kupida sakonaz.

Elenak zerurantz jaso zituen begiak, malko gozotan bustiak, eskuak gurutzatu zituen itolarri misterios batek harrapatua eta mundu honetako ez zen ahots batez erantzun zion:

— Bihar arte.

Gilek eta Heriotzak alde egin zuten eta bera hantxe geratu, arbola artean, zutik, eskuak gurutzaturik eta besoak eroriak, geldirik, liluragarri, ilargiak biziki argitua.

Agarririk gabeko estatua prestua zirudien, lorategi erdian ahantzirik.

## XV

# DENBORA ATZEKOZ AURRERA

— Asko duk ibili behar duguna... —esan zion Heriotzak Gil gure lagunari behin landetxetik aterata—. Nire gurdia eskatuko diat.

Eta oinaz lurra zauritu zuen.

Hots gorra, ekaitzaren aurrekoa bezalakoa entzun zen lur azpitik. Lagun bien inguruan gero, lurrin hausgara bat jaso zen eta laino artetik marfilezko gurdi antzeko bat ageri (antzina paganoaren garaiko ozka txikietan ikusten ditugunen araberakoa).

Edonork azaletik erreparatuta ere (ez diogu irakurleari ezkutatuko), gurdia ez zela marfilezkoa konturatuko zen, giza-hezur huts eta soilezkoa baizik, leundu eta gutizia ikaragarritz bata besteekin korapilatuak, baina berezko itxura galdu gabe.

Heriotzak eskua eman zion Gil Gili eta gurdira sartu ziren, gaurko globoen modura jaso zelarik aldetara, barruko gogoak gidatua ordea.

— Luze ibili behar badiagu ere —jarraiki zuen Heriotzak—, astia soberan diagu, gurdiak neuk nahi adina hegaz egingo baitu... irudimenak beste! Aldizka arin eta mantso joango gaituk, ditugun hiru orduetan lur osoari jira oso bat ematen ahaleginduz. Madrilen oraintxe gaueko bederatziak dituk... Ipar sortalderantz ibiliko gaituk eta honela eguzki argiari itzuriko zioagu.

Gilek ixilik jarraitu zuen.

— Ederki! Ixilik egon behar al duk? —segi zuen Heriotzak—. Neuk bakarrik hitz egingo diat orduan. Ikusiko duk zein agudo aldatu eta ixilunea apurrarazten diaten ikusiko dituan ikuskizunek. Goazen!

Gurdia, gure bidaiariak igoz geroztik norabiderik gabe balantzaka ari zela aldean, martxan jarri zen, lurretik gertu baina abiadura deskribaezinez.

Gilek bere landare, mendi, arbola, ibai, amildegia, lautadak ikusi zituen denak nahaspilaturik.

Aldian behin suren batek artzain xumeen aterpea adierazten zien; maizago ordea, gurdia geldiro pasatzen zen harrizko pila handi batzuen gainetik, itxura errektangularretan metaturik,

zeintzuen artean itzalen bat igarotzen zen argi bat aurrean zuelarik; eta era berean kanpai hotsak entzuten ziren hiletara edo ordua jotzen, ia berdina delarik, eta gau-beilariaren kantua, hura errepikatzen. Heriotzak halakoetan barre egiten zuen eta gurdiak berriz tximistak baino azkarrago hegaz egiteari ekiten zion.

Ekialderantz aurreratzen ari ziren heinean, iluntasuna tinkoagoa zen, hirien atsedena sako-nago, handiagoa naturaren ixiltasuna.

Ilargia sartalderantz iheska zebilen uso bel-durtiaren gisa; zeruan izarrak lekuz etengabe aldatzen ziren gudoste bat sakabanatzen den modura.

— Non gaude? —galdegin zuen Gil Gilek.

— Frantzian... —erantzun zion Heriotzak—. Mende honen hasieran hain krudelki borrokatu duten bi herrialde gudazaleak gurutzatu dizkiagu. Suzesio gudaren antzerki osoa ikusi ere. Garaile eta bentzutuak une honetan lo zeudek. Ene ikasle, loa borroketan edo gero gaitzak jota hil ez diren heroeen errege duk orain... Nik ez zekiat zergatik hor behean gizon guztiak ez zaren elkarren lagun! Zuen ahulkeria eta zoritxa-

rren berdintasuna, elkarren artean duzuen beharra, zuen bizitza laburra, munduen handitasun mugagabearen ikuskizunak eta hauek zuen txikitasunarekin konparatzeak, guzti honek anaia-arreba arteko giroan baterazi beharko zintuzkete, hondoratzeko zorian dagoen itsasontziko bidaztien modura; bertan ez zegok ez amodio, ez gorrotorik ez eta handi-nahirik ere; inortxo ere ez duk zordun, ez hartzekodun; inor ez duk ez handi, ez txiki, ez itsusi, ez eder, inor ez zoriontsu, ez zorigaiztoko. Arrisku berak inguratzen dizkik eta nire agertzeak denak berdintzen dizkik. Zer da bada, lurra altuera honetatik ikusita? Zer hondora doan untzia, izurriak edo suteak hartutako hiria baizik?

— Zer dira ilargia ezkutatu zenetik lurreko hainbat puntutan distiratzen ikusi ditudan ireltxo argi horiek? —galdegin zuen gazteak.

— Kanposantuak... Paris gainean gaudek. Hiri, herri edo herrixka bizi bakoitzaren alboan, hiri, herri edo herrixka hila zegok, itzala beti gorputzaren saihetsean dagoen legez. Geografia bikoitza da beraz, zuek atsegina uste duzuen hartaz soilik mintzatzen bazarete ere. Lur gai-

nean dauden hilerri guztien mapa eginez gero, nahiko huke zuen munduko geografia politikoa konprenitzeko. Populakuntzaren kopuruan edo zenbatekoan konfunditu egingo zinatekete hala ere: hilerriak herri biziak baino askozaz beteagoak zeudek, hauetan gehienez hiru belaunaldi dituzue eta haietan berriz, batzutan ehundaka, belaunaldi dituzue. Distirutzen ikusten dituan argi haietaz, gorpuen argi jarioak dituk, edo hobe, milaka izate ezabaturen azken dirdaiak dituk, amodio, handinahia, sumin, haserre, errukien agortzeak dituk, hiltzera doazen azken argi garrak, desagertzen den bakoiztasunarenak, ama-lurrari gorpuztea bihurtzen dizkion izatearenak, itsas handitan ezabatzean ibaiak sortzen dituen aparrak dituk azken finean.

Heriotzak geldiune bat egin zuen.

Gil Gilek, honekin batera, oin-azpitan hots beldurgarri bat sentitu zuen, zurezko zubian zehar trotaka doazen mila gurdi gisa. Lurrerantz begiratu eta ez zuen eriden. Bere ordeztan, amildegi modura, zeru mugikor antzeko bat ikusi zuen.

— Zer da hau? —galdetu zuen harridurak jota—.

— Itsasoa duk... —esan zuen Heriotzak— Alemania gurutzatu berri diagu eta iparraldeko itsasoan barrena goazak.

— A! ... Ez!.. —hasperen egin zuen Gilek izu instintibo batek harrapatua—. Beste alderen batera eraman nazazu... Eguzkia ikusi nahi nuke!

— Horretarako atzera egin behar badiagu ere eguzkia ikustera eramango haut. Alderantzizko denboraren ikuskizun bitxia ikusiko duk horrela.

Airean gurdiari jira eman eta hego-sortalde-rantz hasi ziren lasterka.

Pixka bat geroago hasi zen berriz Gil Gil olatu-entuen hotsa entzuten.

— Mediterraneoan gaudek —esan zion Heriotzak—. Orain Gibraltargo itsas-zintzurretik... Hona hemen Atlantiko itsasoa!

— Atlantikoa! —errespetuz murmurikatu zuen Gilek.

Eta jadanik zeru eta ur besterik ez zen ikusi, edo hobe esateagatik zeru hutsa.

Gurdiak hutsean noraezean zirudien, lur egur-eraketatik at.



Izarrak nonahi ñir-ñirrean ziharduten, buru gainean, azpian, inguruan, begirada edonon ezarrita, han ere.

Honela beste minutu batez iraun zuten.

Segituan, urrutian, marra purpura bat somatu zuen bi zeruen banatzaile, bata tinko eta igerikakorra bestea.

Marra purpura gorri bihurtu zen eta gero laranja, ondoren urrea bezain distiratsu hedatu zen, itsasoan zabaltasuna argituz.

Izarrak desagertuz joan ziren pixkanaka. Egun argia zetorrela zirudien.

Baina orduantxe, ilargia berriz azaldu zitzaion. Momentu batez distiratu ahala, ordea, ostertzeko argiak zohartasuna lapurtu egin zion.

— Egunsentia... —esan zuen Gilek.

— Aitzitik... —erantzun zuen Heriotzak—. Ilunabarrean gaudek, eguzkiaren atzetik eta askoz azkarrago gabiltzanez, ilunabarra egunsenti eta sortzea mendebalde izango diagu... Horra hor Azores ederrak.

Egia: irla multzo atsegina agertu zen itsas erdian.

Arratseko argi malenkoniatsuak hodei artean hautsi eta ibaien lanbroetatik tartekatuz, irla multzoari itxura paregabea ematen zion.

Gil eta Heriotza, itsas basamortuetako oasi haiez gain igaro ziren geratu gabe.

Hamar bat minututara eguzkia jalgi zen olatuen altzotik eta ostertzean pitin bat jaso zen.

Baina Heriotzak gurdiari freno a ipini eta eguzkia berriz sartu zen.

Berriro ere abiatu ziren eta horrekin batera eguzkia sortu.

Bi ilunabar batera ziren.

Guzti honek handiki harritu zuen gure heroea. Luzeago ibili ziren egun zein itsasoan olgatz. Gilen erlojuak hala ere, gaueko, hala esaterik baldin badago, bederatziak eta laurdenak seinalatzen zuen.

Minutu batzuk geroago Ipar Amerikak sortu ziren itsasoetatik.

Pasatzean Gil Gilek gizon emakumeen afanetan erreparatu zuen, bai baratzak goldatzen, bai itsas ertzetan untzietan labainduz, bai hirietako karriketan builaka.

Ez dakit non, hauts handi bat nabaritu zuen... guda bat zen.

Beste alde batean Heriotzak elizkizun hunki-garri batean oharrarazi zion, herri hartako idoloa zen arbola bati eskainia.

Areago gazte basati batzuk seinalatu zizkion, basoan bakarrik elkarri amodioz begira zeudela... Gero, lurra berriz desagertu eta Pazifiko itsasoan barneratu ziren.

Txorien irlan eguerdia zen.

Beste milaka irla azaldu zitzaizkien begiei alde guztietatik.

Haietariko bakoitzean, ohitura, erlijio, eta zeregin ezberdinak ziren. A, zein jantzi eta ospakizun bariazioa!

Honelaxe Txinaraino iritsi ziren. Han egunsentia zen.

Egunsenti hau gautzea izan zen gure bidaztientzat. Izar ezberdinak agertu ziren zeru horniketa gisa. Ilargiak berriz, ekialdera agertu zen eta berehala gorde ere.

Lurrak bere ardatzaren inguruan baino abiadura handiagoz jarraitu zuten hegaz egiten.

Asia ere gurutzatu zuten. Gaua zen; ezkerraldean Himalayako mendi-katea, non izar argitan elur eternoak dirdirrean baitzeuden, utzirik, Caspio itsas ertzetatik igaro, ezkerretara apur bat jiratu zuten eta hiri baten alboko mendi tontor batean gelditu ziren. Une hartan gauerdia zen.

— Zein hiri da hau? — itaundu zuen Gil Gilek.

— Jerusalem gaudek — aipatu zuen Heriotzak.

— Jada?

— Bai... gutxi falta zaiguk lurrari buelta osoa emateko. Gauerdia duk eta gaueko hamabiak jotzen duten aldiro belaunikatu ohi nauk, horregatik gelditu gaituk.

— Zergatik?

— Unibertsoaren sortzailea ohoratzeko.

Eta honela esanez gurditik jaitsi zen.

— Nik ere nahi dut Jainkoaren hiria begiratu eta bere hondakinen gainean mediatu — adierazi zuen Gilek Heriotzaren ondoan belaunikatu eta errukiz eskuak gurutzatu zituelarik.

Otoitzetan bukatu zutenean, Heriotzak bere hitz jarioa eta poza berreskuratuz gurdian sartu zen Gil Gilen gibelean eta honela esan zuen:

— Han, mendi baten gainean ikusten duan herrixka Getsemani duk. Bertan olibondoen ortua zegok. Alde honetan ikusiko duk eliza batez koroaturiko tontorra, izar landa batean nagusi. Golgota duk! Hortxe nire bizitzako egunik handiena pasa nian! Jainko berari irabazia niola uste nian... eta hala izan nian ordu askoz. Baina ai!, mendi horretantxe ere hiru egun geroago, igande goiz argi batean desarmatu eta garaiturik sentitu ninduan: Jesus berpiztu egin huen! Leku hauek, ere, garai berberean, natura-rekin izan nituen gatazken lekuko izan hituen. Hemen gertatu huen berarekiko guda, guda izugarri hura... arratsaldeko hiruretan, argi gogoratzen diat, Longinosen lantza salbatzailearen petxuaren aurka eutsiz ikusi ninduen ahala, harrika has zitzaidan, kanposantuak hankaz gora ipintzen, hildakoak berpizten, zer zekiat nik! Natura gaixoak burua galdu zuela pentsatu nian!

Heriotzak une batez erreflexionatu eta gero burua altxatuz, aurpegia serioago zuela, gehitu zuen:

— Ordua duk! ...Gauerdia pasa duk. Goazemak nire etxera eta hitz egin beharrekoari ekin diezaiogun.

— Non bizi zara? —lotsatiki itaundu zion Gil Gilek.

— Ipar lur-muturrean! —ihardetsi zion Heriotzak—. Mundua bezain zaharrak diren elur eta izotz artean! Giza oinek inoiz zapaldu eta zapalduko ez duten tokian!

Hau esanda, Heriotzak iparraldera jarri zuen norabidea eta gurdiak sekula ere baino arinago hegaz egin zuen.

Asia txikia, Itsas beltza, Errusia eta Spitzberg desagertu ziren gurpil azpitik asmakeria fantastiko gisa.

Ostertza gar ikusgarriez argitu zen geroago, arroka eta karralozko paisaia batek islaturik.

Dena zen isiltasuna eta zuria lur gainean... Zerua ubel antzekoa zen, ia nabari ezinezko izarrrek zipriztindua.

Ostargi-gorria eta izotza! ...Mundu-alde bel-durgarri hartako bizi guztia.

— Lur-muturrean gaudek... —esan zuen Heriotzak—. Iritsi gaituk.

## XVI

# HERIOTZAK SERIOTASUNA BERJASOTZEN DUENEKOA

Gil Gilek hegazaldian hainbeste gauza estrainu ikusi izan ez balu, Elenaren oroitzeak bere gogoaren zoko guztiak bete ez balitu, Heriotzak nora ote zeraman jakin grinak bere izpiritu nahasia ilundu ez balu, oso une egokia zatekeen geografia arazo handiena ikertu eta argitzeko: lurreko muturren nolakotasuna eta kokatzea. Izotz iraunkorrek konfundituriko ipar itsaso eta kontinente misterioetsuen arteko mugak; munduaren ardatz arrazionalak bere pasoan utziriko amildegia; zeru-sabai izarreztatuaeren itxura, non batera bereiziko lirakeen Ipar Amerikak, Europa osoa, Asia Troiatik Japoniaraino eta bi itsasoen iparra apaintzen duten izar guztiak; ostargi gorriaren gune kiskalgarria; eta zientziak alferrik aspalditik jarraitzen dituen hainbat gertakizun eta bitxikeria, eremu beldurgarri honetan hil diren milaka itsasgizon presturen bizkar, gure heroearentzat egun argia bezain nabarmenak

gertatuko ziratekeen guzti hauek eta gaur gure irakurleei komunikatu geniezaieke.

Gil hala ere, ez zegoen halako xehetasunetarako ez eta guk ipuinaren hariari ez dagokion zenbait gauza gure esku hartu; geldi bedi, bada, gizakia lur muturrei buruzko bere ezjakintasunean eta kontraera honi jarraiera eman diezaio-gun.

Bestalde, iraila haserako lehen egunak izango zirela oroitaraziz, ulertuko duzue eguzkia oraindik distiran zegoela zero hartan, non bost hilabete baino gehiagoz behin ere ez zuen gautu.

Bere argi ahul eta saiheskorrera jaitsi ziren gurditik bi bidaiariak eta Heriotzak Gil Gilen eskua hartuz, atseginez aipatu zion:

— Hire etxean hago: sar gaitezen.

Izotz koxka eskerga bat zeukan begi aurrera.

Izotz metaren erdian, munduaren adineko elur hartan tinkaturiko beirazko horma antzekoa, gizon bat apenas pasatzen utziko zuen zirrikitu luzanga bat zegoen.

— Bidea erakutsiko diat —aurrea hartu zuen Heriotzak.



Egiaren dukea gelditu egin zen bere kideari jarraitzearen beldurrez.

Baina, zer egin ordea? Norantz egin eremu mugagabe hartan? Zein bide aukeratu izotzezko lautada zuri eta bukaezinetan?

— Gil! Ez al duk sartu behar? —esan zuen Heriotzak.

Gilek eguzki zurbilari handiki azken begirada luzatu eta izotzetan barrena sartu egin zen.

Eskailera espiral batek materia izoztuan bertan eraikia, buelta eta txoko bihurrietatik, egongela karratu batera gidatu zuen, batere altzari eta apaingarririk gabekoa, dena izotzezkoa, Poloniako gatz mehatzak edo Ispahan eta Medinako marmolezko bainu gelak gogoratzen zituelarik.

Heriotza bazter batean kukubilkatua zen ekialdetarren gisa.

— Hator nire albora, eseri eta hitz egin dezagun —agindu zion Gili.

Gazteak pentsatu gabe obeditu zuen.

Hain ixiltasun sakona nagusitu zen, ezen mamarru mikroskopiko baten arnasa ere entzun-

go baitzen, eremu haietan Heriotzaren babesetik kanpokorik izaterik balego.

Zegoen hotzaz, zernahi esanda ere gutxi litzateke. Bero eza erabatekoa imajina ezazue: bizitzaren ezeztapen guztizkoa, mugimendu ororen gelditze orokorra, heriotza izateko era bakarraz, eta oraindik ez zenukete mundu hilotz honen ideia zehatzik egingo; hilotza baino arago, zeren ez baitzen ez usteldu ez itxuraldatu eta ez zien beraz, zizareei jatekorik eskaintzen, ez landareei simaurrik, ez mineralei elementurik, ez eguratsari gasik ere Unibertsoaren ernamui-nik gabeko nahasmena zen; izotz iraunkorren azpian ezereza.

Gil Gilek alabaina, Heriotzaren babesari esker jasaten zuen hotza.

— Gil Gil... —hasi zen hau tonu geldo eta handian—. Hire begietan egia huts eta liluragarriaren distirak azaltzeko tenorea iritsi duk: hitz gutxitan zuen harremanaren historia laburtu eta hire etorkizunaren misterioa agertu egin behar diat.

— Hitz egin ezazu... —erantzun zuen Gilek adoretzu.

— Dudarik ez zegok, ene lagun hori —jarraitu zuen Heriotzak—, bizirik jarraitu nahi duala; nire ahalegin guztiak, gogoetak, minutuoro jakinazten dizkiadan agerpen guztiak, alferrikakoak direla hire bihotzean bizitzarekiko maitasuna iraungitzeko.

— Elenarekikoa esan nahiko duzu! —moztu zion gazteak.

— Maitasunarekiko maitasuna... —bota zion Heriotzak—. Maitasuna bizia duk, bizia maitasuna, ez ezak hau ahaztu. Eta bestela, hire mediku karrera ospetsuan eta egin berri dugun bidaiari ederki konprenituko huen gauzan pentsa ezak: gizona, zer duk? Zer adierazten dik bere izateak? Hik eguzkitik eguzkira lotan ikusi duk eta ametsetan ere. Amets artean egunero hamabi edo hamalau ordu zituzkeen ernai, zertan ematerik ez zekiela. Alde batean, armak eskutan zeuzkala topatu duk bere berdinak akabatzen, bestetan jakiak aldatu asmoz itsasoak gurutzatzen ikusi duk. Zenbait, kolore honetaz edo hartaz jazten afanatzen hituen; hainbatek lurra zulatu eta beren buruak ederretatzeko metalak ateratzen zizkiaten. Hemen bat akabatu, han beste bati

itsu-itsuan obeditu. Batean bertuteak eta zuzentasunak hau edo bestea suposatzen zuten, bestean berriz, alderantzizkoa; besteek erruztat zutena hauek ontzat jotzen dute. Edertasuna bera ere irudimen eta ohiturazkoa irudituko zitzaian, Circasia, Txina, Congo edo eskimalen herria zeharkatu ahala. Nabaria ere egingo zitzaian zientzia berehalako efektuen esperimentu traketsa besterik ez dela edo eragin ezkutueneren susmo eroa, eta aintza, hitz hutsa dela, gorpu honen edo haren izenari kasualitateak soilik gehiturikoa. Konprenituko huen azken finean, gizonak egindako guztia denbora pasatzeko ume jokoa besterik ez dela; bere mixeria eta handikeriak erlatiboak direla guztiz; bere zibilizazioa, gizarte antolaketa, interesik serioenak ez hanka eta ez buru ez dutela; modak, ohiturak eta hierarkiak, ke, hauts, harrokeriaren harrokeria direla. Harrokeria ez baina, are gutxiago! Bizitzaren atsedenaldiak entretenitzeko jostailuak dituk, sukartsuaren eroaldiak, zoroaren liluraldiak! Ume, zahar, jauntxo, ezjakin, eder, elbarri, errege, menpeko, aberats, eskale... niretzat denak berdintsuak zarete; denak, nire hatsak deusez-

ten duen hauts eskukada. Eta hala ere bizitza goraipatuko duk! Munduan jarraitu nahi duala esango didak hala ere! Ustekeria iragangaitz hori maite duk hala ere!

— Elena maite dut!.. —errepikatu zuen Gil Gilek.

— A! bai, bizitza amodioa, bizitza desioa duk. Amodio honen ereduak ordea ez dik honen edo haren buztinezko edertasuna izan behar. Tentel horiek, urrutikoa beharrean hurbilekoa hartzen duzuen horiek! Bizitza amodioa duk, bizitza sentimendua duk, baina gorena, bizitzaren adierazgarririk handiena, jaio berna zein hilzoriaren aurpegian behera ixurtzen den tristurazko malkoa duk, izatearen gose eta esistentziaren pena sentitzen duen giza-bihotzaren kexu malenkonia-tsua, beste bizitza baten nahi gozoa edo beste mundu baten oroitzapen krudela. Munduko handikeriez betetzen ez diren arima handien haserre eta ezinegona, zalantza eta arrangura, beste herri baten auresusmoak dituk, botere eta zientziaren helburu nagusiago batenak, gizonen handikeria iragankorra eta emakumeen sorginkeria okerrak baino mugagabeagoaren susmoak,

azken finean. Hi eta nire historia ezezagunei har diezaiogun kontu, hire existitze arrotzaren misteriora jaits gaitezten; gure elkarren arteko laguntasunaren arrazoiak argi ditzagun. Gil Gil, herorrek esana duk, bizitzak eskaintzen dituen aukera ustekoen artetik, bat bakarra desiratzen duk eta emakume baten jabetzea duk hain zuzen. Hire izpirituan beraz, sekulako irabaziak egin dizkiat!, ez botere, ez ondasun, ez ohore ez eta aintzak, ezerk ere ez zioz hire irudimenari irribarre egiten... Honetaz, filosofo hazia eta kristau goitik beherakoa haiz... eta puntu honetara erakarri nahi hindudan. Esadak hala eta guztiz, andere hura hilik izanez gero hiltzea sentituko huke?

Gil Gil garrasi beldurgarri bat kanporatuz jaiki egin zen.

— Nola! Elena...?

— Lasaitu hadi —jarraitu zuen Heriotzak—. Utzi huen moduan zegok hura. Hipotetikoki ari gintuan. Erantzun idak orduan.

— Elena akabatu baino, kendu idazu niri bizi-tza! Hona hemen nire erantzuna.

— Ederki! —gehitu zuen Heriotzak—. Eta esadak, Elena zeruan hire aiduru duala jakitekotan ez al hintzateke lasai eta pozik hilko, jaungoikoa benedikatu eta berari arima eskainiz?

— O! Bai, heriotza orduan berpiztea litzateke —esan zuen Gil Gilek.

— Honelaxe, bada... —jarraitu zuen pertsonaia beldurgarriak— hire alboan egonda, beste guztiak bost axola dik orduan.

— Ezertxo ere ez!

— Ongi bada... jakin ezak dena! Gaurkoa ez duk mundu katolikoaren 1724.go irailaren 2.a, imajinatuko hukeenaren arabera... Duela askozaz urte gehiago hi eta biok lagunak garela.

— Arraioa! Zer diostazu? Zein urtetan nago?

— XVIII. mendea pasa da dagoeneko eta XIX.a, eta XX.a, eta zenbait gehiago ere. Elizak gaur Antonio sainduaren alde egiten du otoitz eta 2.316. urtean gaudek.

— Hilik nago beraz!

— Duela 600 urte inguru.

— Eta Elena?

— Hire garaian hil huen. Elkar ezagutu genuen gauean hil hintzen.

— Nola? Olioa edan al nuen?

— Azken tanta arte. Elenari dagokionez, hire amaiera zoritxarrekoa jakitean doluz hil huen. Duela beraz, sei mende biok nire menpe zaude-tela.

— Ezinezkoa! Zoratu egingo nauzu!

— Nik ez diat inor zoratzen... adi egon hadi eta hire alde egin dudan guztia jakingo duk. Elena eta hi aipatu diadan datan hil zineten; Elena, azken juizioaren egunean aingeruen etxera bidalia duk eta hi, infernuko oinaze guztien gaia izana haiz. Hura, garbi eta errugabea izateagatik eta hi, Jainkoaz ahaztuta, handinahi ziztrinak bazkatuz bizi izateagatik. Orain, azken judizioa, bihar bertan ospatuko duk, behin Erroman arratsaldeko hirurak jota direla.

— O! Ene jainkoa...! Mundua desagertzera doa! —oihu egin zuen Gilek.

— Bahuen garaia! —esan zuen izaki ikusgarriak—. Azkenean atsedena...!

— Mundua desagertzera doa! —espantuz toteldu zuen Gilek.

— Ez axolarik izan! Hik ez duk honezkero ezer galtzekorik. Entzun idak. Gaur azken judi-



zioa gertu zegoela ikusita, nik (hitz egin genuen lehendabiziko aldian aipatu nianez, oso hurkoa izan hindudan honek), eta Elenak, zeruan lurrean beste maite hinduenak, hire arimaren alde erregutu genion Betirakoari, Suizidioaren alde ez dut zer eginik..., ihardetsi zigun Sortzailak, ordubetez utziko dizuet bere izpiritua, hobe ezazue ahal baduzue. Salba ezazu, esan zidan Elenak bere aldetik. Nik, zin egin nioan eta, hire bila jaitsi ninduan hilobira, sei mendetako lo sakonean hintzen lekura. Hantxe, zerraldoaren buruan jezarri eta bizitzarekin amets eragin nian. Gure elkartzea, Felipe V.ari egindako bisitaldia, Luis I.aren gorteko eskenak, Elenarekiko ezkontza, den dena hilobian egin duk amets. Ordubete bakar batez hire bizitzako hiru egun pasa dituk, instant bakar batean hire heriotzako 600 mende igaro duan bezalaxe!

— O...! Ez... ez da amets bat izan! —esan zuen Gilek.

— Hire harridura konprenigarria duk -jarraitu zuen Heriotzak—. Egia ematen zian...! Honek bizitza zer den esango dik. Ametsek errealitate antza ditek eta errealitateek ametsenak. Elenak

eta biok garaitu egin diagu. Zientziak, esperien-  
tziak eta filosofiak bihotza garbitu diate, izpiritua  
goratu, lurreko handikeriak ikustarazi dizkiate  
beren harrokeria osoan, eta honela, heriotzari  
ihesean, atzo egin modura, ez huen mundutik  
alde egiten eta betirako amodioa oihu eginez,  
gaur egiten duan bezala, hilezkortasunaren alde  
oihu egin duk. Garbi hago!

— Baina Elena... —murmurikatu zuen Gilek.

— Jaungoikoaz ari gaituk! Ez ezak Elenaren-  
gan pentsa. Elena ez duk existitzen, ez eta seku-  
la existitu ere. Elena edertasuna, hilezkortasuna-  
ren isla baino ez huen. Gaur, egia eta justiziaren  
izarrak bere distirak jasotzean Elena Berarekin  
nahastu duk betirako. Berari beraz, eskaini  
behar dizkiok botoak.

— Ametsa izan da! —zioen gazteak itolarrian.

— Eta horixe izango duk mundua ordu  
batzuen buruan, Sortzailearen ametsa.

Honela esanda, Heriotzak, zegoen lekutik jai-  
kiz, burustu eta begiak zeruetara jaso zituen.

— Erroman egunsentia duk... —murmurikatu  
zuen—. Azken eguna hasi berria duk. Adio Gil...  
sekula ez arte!

— O! Ez nazazu laga! —oihu egin zuen zorigaiztokoak—.

— Ez nazazu laga! Heriotzari diotsok. Eta atzo nigandik ihesean henbilen!

— O! Ez hemen bakarrik utzi, atsekabe eremu honetan! Hau hilobi baita!

— Zer? —ironiaz moztu zion Jainko beltzak—. Horren gaizki joan al zaik bada seiehun mendetan?

— Nola? Hemen bizi izan al naiz?

— Bizi! Nolanahi deitua ere hemen egin duk lo denbora horretan zehar.

— Hauxe da, bada, ene hiletxea?

— Bai... ene lagun hori, eta ni desagertu bezain pronto hortaz konbentzituko haiz. Orduan bakarrik sentituko duk osoki etxe honetako hotza!

— A...! Berehala hilko naiz! —egin zuen oihu Gilek—. Ipar lur-muturrean nago!

— Ez haiz hilko, hilik baitago, baina hirurak arte lo iraungo duk, belaunaldi guztiekin batera itzartzeko.

— Nire lagun...! —garrasi egin zuen Gilek garratasunez—. Ez nazazu laga edo ametsetara

bihur nazazu berriro! Ez dut lorik egin nahi... Amets honek izutu egiten nau! Hilobi honek ito egiten nau! Guadarramako landetxe hartara bihur nazazu, Elena ikustea iruditu zitzaidan hartara, eta bertan harrapa nazala Unibertsoaren suntsidurak! Jaungoikoarengan sinesten dut, bere justizia onartu eta bere errukitasunera makurtzen ere... baina itzul idazue Elena!

— Zein amodio handia! —esan zuen besteak—.

Bizitzatik eta orain heriotzatik ere garaile aterako haiz! Lurra erdeinatu duk eta zerua ere gutxietsiko huke! Hala bedi Gil Gil, baina arima ez ezak ahaztu.

— O! Mila esker..., eskerrik asko lagun! Elenaren albora eramango nauzulako.

— Ez, ez haut eramango. Elena lo zegok bere hilobian. Hona etorraziko diat, bere heriotzako azken orduak hire aldamenean lo egin ditzan.

— Egun batez elkarrekin lurperaturik egongo gara! Nire aintza eta zorterako gehiegizkoa da, Elena nire aurrean ikusten dut jada! Maite nauela entzun diezaiodala, betirako lurrean ala

zeruan nire alboan geratuko dela jakin dezadala eta hilobiko gauak deus ez dit inporta!

— Zatoz, bada, Elena, nire agindua da! — esan zuen Heriotzak tonu leizetsuan lurra hankaz zapalduz.

Elena, Guadarramako lorategian gelditu zen halaxe, soineko zuritan bilduta baina alabastroa bezain zurbil, agertu zen eskena zoragarri hau gertatzen ari zen izotzezko gela erdira.

Gil Gilek belaunikaturik errezibitu zuen, aurpegia malkotan blai, eskuak gurutzaturik, Heriotzaren aurpegi barean begirada eskerkoi bat ipiniz.

— Agur nire lagun horiek... —esan zuen honek.

— Zure eskua Elena! —toteldu zuen Gilek.

— Nire Gil maitea! —murmurikatu zuen besteak senarraren aldamenean belaunikatuz.

Eskuak gurutzaturik eta begiak zerutara jaso-ta, Heriotzaren agurrari beste agur malenkonia-tsu batez erantzun zioten.

Jainko beltza bitartean, mantso urrutiratzen ari zen.

— Sekula ez arte! —murmurikatu zuen gizonaren lagunak urruntzean.

— Nirea betirako! —zioen Elenak beretan Gilen eskuak estutuz—. Jaungoikoak barkatu egin zaitu eta elkarrekin biziko gara zeruan!

— Betirako! —errepikatu zuen gazteak poztarren.

Halako batean Heriotza desagertu egin zen.

Hotz izugarri batek harrapatu zuen egongela eta supituan Elena eta Gil Gil izozturik gelditu ziren, harriztaturik, eskuetatik helduta, begiak zerurantz, hilobiko bi estatua izugarri gisa.

# AMAIERA

Ordu gutxi geroxeago, Lur osoa granadaren tankerara lehertu egin zen.

Izar hurkoenek, deuseztaturiko masaren hondar-zatiak erakarri eta irentsi egin zituzten; honen ondorioz, izugarrizko kataklismo eta tris-kantzak sortu zitzaizkien: erauntsiak, eurite latzak, ardatz polarretatik desbideratzeak etab...

Ilargia, ia osorik zegoelarik, ez dakit Venus edo Merkurioren satelite bihurtu ote zen.

Bitartean, Adan eta Ebaren familiaren Azken Judizioa burutua zen, ez Josafaten haranean, Carlos V izeneko kometan baizik; eta gaizkileen arimak beste planetetara erbesteratuak izan ziren, han bizitza berri bati hasera eman behar ziotelarik... ba al dago zigor handiagorik?

Bigarren esistentzia honetan garbitzen direnak, astroen desagertzean, Jainkoaren altzora itzultzeko aintza erdietsiko dute.

Oraindik garbitu gabe direnak, beste ehun mundutara atzerriratuak izango dira, guk egin dugun modu berean peregrinatzeko.

Gil eta Elenari gagozkiela, arrats hartantxe Prometitutako Lurrean sartu ziren eskuetatik lotuta, dolu eta penitentzietatik betirako aske, libro eta goratuak; beste bihotz oneko eta garbitu oro bezalaxe, jainkoarekin bake-lortuta, Bere aintzaren premu eta zoriontasunaren partaide.

Bestetik, atsoen modura bukatu nezake nire ipuina: Joan, jin eta ez zidaten ezer eman.

Guadix, 1852